

ESAKO URTEGIA MILAKA LAGUNEN EGUNEROKO MEHATXUA

ARRISKUA GUTXIETSI EGIN DELA DIO
NAFARROAKO GOBERNUAK

» KATALUNIA: HURRENGO KOLPEA BERRIZ ERE ESPAINIAREN ESKU

» EDURNE KOCH: "HAUR TRANSEXUALEI BEREN IDENTITATEA UKATZEN ARI ZAIE, GUZION PARTETIK ETA EGUNERO"

» KAXUBIARREK BADUTE IKASTOLA



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Zorrak suntsitu du Puerto Rico kolonizatua

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Ruben Sánchez Bakaikoa
- 19 Ainhoa Azurmendi
- Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Bea Salaberri



Zer gertatuko da Katalunian? Generalitatea eta Moncloa jokatzeko ari diren partiduaren gakoak aztertzen ditugu. (ARGAZKIA: KATALUNIAR GOBERNUA)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGIA-KONTA: LOLA LOPEZ
- 54 BERANDUEGI

SAKONEAN

- 12 | Edurne Koch: "Direna izatea baimentzen zaien lehen belaunaldia dira haur transexualak" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Erreferendumearen espiritua, defentsarik onena / Xabier Letona, Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 27 | "AHT modu paregabea da diru publikoa esku pribatuera abiada handian pasatzeko" / Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
- 28 | Kan Taniya, Abkhaziako atzerri ministro orde: Aldebakarreko independentzia aldarrikapenez / Ibai Trebiño
- 30 | Linky argindar kontagailuak: Osagarria eta bizi pribatuaren errespetua zalantzan / Jenofa Berhokoirigoin
- 32 | Ikastolak izan ditu eredu lehen kaxubiera eskolak / Miel A. Elustondo
- 34 | Euskarabildua: Makinez inguratutako errealitateaz euskarazko jardunaldietan / Xalba Ramirez
- 36 | Esako urtegiaren handitzea: Gutxietsitako arriskua / Ane Eslava Serrano
- 44 | Escuela de Oficios Electrosonoros: Musika elektronikoa sortzeko lantegia / Kepa Matxain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axiar Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginez, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larri, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



PANORAMA

Faxismoa paparra aterata

Aste honen hasiera: Austrian Alderdi Popular eskuindarrak irabazi ditu hauteskundeak eta litekeena da FPO ultraeskuindarraren babesarekin gobernua osatzea. Pasa den astean: Valentzian katalaneraren aldeko manifestariak jipoitu zituzten faxista espainiarrek, Bartzelonan urriaren 12ko "Hispanitatearen ospakizunetan" elkartu ziren talde faxistak-Falange Auténtica kasu- eta popularrak, sozialistak eta Ciudadanos, besteak beste. Puigdemont-ek Companys-en antzera amai dezakeela dio PPko eledun Pablo Casadok eta La Sextak faxisten jipoiak "erradikalen arteko istiluak" izendatzen ditu aho bilorik gabe. Europan, ultraeskuinaren aldarriak, normaltasun osoz, ari dira kaleak eta parlamentuak inguratzen. Egunotan Herrialde Katalanetan egiaztatu duten bezala, zenbait momentutan faxisten indarra erabilgarri zaiolako erregimenari.

Argazkia: Jordi Borràs · Testua: Axier Lopez



Alcalá-Meco espetxean dagoen Ibon Iparragirre preso ondarrutarraren bizitza kinka larrian dagoela salatu dute.



“Oraingo honetan, bere osasun egoera da azken mugara ailegatzen ari dena, eta ez gabiltza txantxetan. Ez badugu zerbait egiten, eta bizkor, Ibon bertan geldituko zaigu”

Iparra Galdu Bai
plataforma



“Azpimarratu nahi dugu mediku arduradunek, espetxe-erakundeek eta epaileak berak duela lau urte eta erditik dakitela Ibonen gaixotasuna terminala eta progresiboa dela”

Etixerat



“SOS Ibon Iparragirre! Estatuak mendekua aplikatzen jarraitzen du espetxe politikan. Aski da!”

@thunapa30



“Hiltzen ari da eta sakabanatua jarraitzen du, etxetik, familiarik eta EHTik urrun”

@eidergorostiza



Lotsaren harresia Bilboko portuan

Andoni Mikelarena

@andonimik

Bilboko Portuko arduradunak lau metroko altuera duen harresia eraikitzen ari dira, errefuxiatuak ferryetan polizoi modura sartzea eragozteko. Erabaki horrek erreakzio ugari eragin ditu eta Bilboko portuan errefuxiatuei atea itxi eta armei zabaldu zaiela salatu dute pertsona ugari. Aurreko abuztuan publiko egin zen Bilboko portutik zenbait arma kargamentu atera zirela Arabia Saudirantz. 312 bat edukiontzik zeramaten “lehergaiak” jartzen zuen errotulua. “8.656 armamentu tona”, Elkarrekin Podemos alderdiko Iñigo Martinezen esanetan. Aldiz, aurreko astean jakin zen migratzaileen aurkako harresi bat eraikitzen ari direla portu berean. Brittany Ferries enpresak zioen, horrela “polizioen arazoa konpontzea

espero” dutela. Bilboko portua Erresuma Batuko Portsmouth hiriarekin lotzen ditu ferry konpainia horrek.

Santurtzi eta Zierbenako kanpaleketako errefuxiatuak izan ohi dira Bilboko portuko ferryetan polizoi moduan sartu ohi direnak. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak apirilean konpromisoa adierazi zuen Europara iritsi diren errefuxiatuei laguntzeko. Baina administrazioa oso urrun dago oraindik konpromisoa betetzetik.

Harresiaren harira, Ahal Dugu Euskadi alderdiak salatu du “pertsonen eskubideak erdigunean jarri beharrean, interes ekonomikoak” jartzen direla. Horregatik, Monika Hernando Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariaren eta Arantxa Tapia Ekonomia sailburuaren agerraldiak eskatu ditu Eusko Legebiltzarrean.

“Behar dugu jendeak jakitea benetan zer gertatu zen eta zer sufritzen ari garen”

ISABEL POZUETA, ALTSASUKO GURASOA

Altsasuko aferatik urtebetera, espetxean dagoen Adur Ramirezen amak dio berdin jarraituko dutela, jazo zena ahalik eta gehien zabaltzen, “behar dugulako jendeak jakitea benetan zer gertatu zen eta zer sufritzen ari garen; horrek indarra eta babesa ematen digu”. Semeek ez dute esperantzarik galdu: “Komentatzen dute, ‘hemendik aterako gara, hau ez da erreala...’ Bisita bakoitza horrela bukatzen dugu, esperantza hori dute, nonbaitetik argia etorriko dela, gauzak bere lekuan jarriko dituen”. **EUSKADI IRRATIA (2017-10-13)**



FAUNA PUBLIKOA

**"Euskalduna naiz,
30 abizen euskaldunekoa,
baina denaren gainetik
espainiarra naiz"**

Ainhoa Arteta, sopranoa (El Español)

Zortzi abizen mantxurriano




Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Nola nahasten diren, zezenaren kemena daukan adierazpen honetan, opera kantari baten alfonbra gorriko goi-kultura eta *8 apellidos vascos* bezalako azpi-produktu zinematografiko baten ideologia populatxeroa: Ainhoa Artetak atera ditu paseatzera Moisesen garaiko bere asabak Federico Garcia Lorcarri gorazarre egiten dion ikuskizun baten erdian, batek daki, agian 1930eko urteetan bogan zeuden ideiekin kutsatuta dagoelako-edo. Eta eskaini du produktu bat oso goian kotizatzen ari dena zenbait hedabide espainiarretan, alegia, arraza euskalduna Espainia *über alles* defendatzen.

Kopla andaluziarretan ari omen zen; aritu zitekeen Osaba Sabin'egaz kopla bizkaitarretan ere: "Antziñeko enda zar, / garbi ta bakana / orain maketuenak / dagona betuta...", stop, stop, stop, ez dauka graziarik-eta. Artetari inork ez dio esplikatu 30 abizen euskaldun edukitzeak egiten zaituela, zehazki, 0 abizen euskaldun edukitzeak bezain euskaldun. Ezta gramo bat gehiago ere. Euskaldun izatea pertenezia-sentimendu bat delako, izan Arteta-Ibarrolaburu-Foruria-Zurutza -memoria behar da horrela hogeita hamarreraino segitzeko-, edo izan Paredes-Antonescu-Diouf-Wang. Ez baitu inporta, Madrilgo karka batzuek edukiko baitute horrekin obsesioa -agian espainiartasun-karnetak horrela banatzen dituztelako-, baina hemen pentsatzeko modu hori bota genuen Historiak errefusa botatzen duen kontainerrean.


Bonus-track gisa, tolosarrak kataluniarrei eskaini zizkien azken bi kantuak, "sentitzen direlako -ni denbora luzez bezala- ideologikoki bahituta". Ez Arteta: bahituta Jose Maria Aldaia edo Jose Antonio Ortega Lara egon ziren. Fribolitateak baditu mugak. Norbere burua biktimen pare jartzea, adibidez.

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



USTE DUZU BERTSO
TXAPELKETA NAGUSIAN
AIPATUKO GAITUZTELA?

ESPERO DUT
EZETZ...!



AÑUR

ANALISIA



"Agur 78"ren kanpalekua kendu arazi zuen poliziak urriaren 12an Gasteizen.

"A por ellos"



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: ARRAN

Urriaren 7an Gasteizen Zaramagako bazterrak ezagutu genituen Argia Egunean, Martxoak 3 elkarteko lagunen eskutik. Langile auzo hartan duela 41 urte izandako sarraskiaren agertokiak bertatik bertara ikusi genituen; egun itxirik dagoen San Frantzisko eliza barruan ere izan ginen, Luis Llachen *Campanades a morts* entzunez orduko giro itogarria gure azalean sentitzeko. 1976an poliziak hango kristalak hautsi eta barruan zegoen milaka jende literalki gaseatu zuen.

Elizaren hormigoizko paretetan ikus-entzunezko sormen lana proiektatu zuten Martxoak 3koek: tiroz hildako bost langileen senideen orduko testigantza ikaragarria, txikitatik begi-ninian geratu zaizkigun argazki historikoak... eta audioak. Poliziari FM frekuentzia bidez atzemandako audio horiek askotan entzun ditugu, baina orainaldira itzularazi gintuen detaile batez jabetu ginen: "...Si hay gente a por ellos (...) vamos a por ellos, cambio".

Ezkilen hotsa Katalunian sumatzen den honetan, antzekotasun ugari daude duela lau hamarkada gertatutakoarekin. Gasteizen, erregimenarentzat arriskutsua zen mugimendu asanbleario bat zapaldu nahi izan zen eta herri oso bat atera zen kalera. Katalunian ere egungo

erregimena kinkan jarri du prozesu independentista transbertsal eta zabalak. Ez da kasualitatea 1976an hildako langileak agurtu zituzten Katedral Berriaren plaza okupatu izana Agur 78 ekimenak, "erregimena hausteko" lehen urrats bezala.

Fragak esan zuen: "Adibide triste honek balio dezala lezio gisa". Martxoaren 3ko sarraskia erabaki politikoa izan zela baino azalpen gardenagorik... Poliziaren "a por ellos" edo "carguen con todo" bakoitzaren atzean -Iñigo Cabacas hil zuten gauean ertzain-buruak esan zuen bezala- agindu politikoak baitaude.

Human Rights Watch-ek ondorioztatu du urriaren 1eko Kataluniako autodeterminazio erreferendumean "gehiegizko indarra" erabili zela eta eskatu du 1.000 zauritu baino gehiago -batzuk oso larriak- eragin zituen poliziaren biolentziaren inguruko ikerketa independentea egiteko. Ez dakigu ikerketa egingo den, ezta inoiz erantzukizun politikorik argituko den ere.

Baliteke Rajoy eta Sáenz de Santamaría etorkizunean amaitzea Fraga eta Martin Villak bezalaxe, euren justiziak babesturik. Baina Llachen kantak dioen bezala, herritar askoren oroimenak pertsegutuko ditu heriotzan ere "arrazoia-ren hiltzaile" direnak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Garoñak hor segitzen du



Juan Mari Arregi

Gasteiztik 40 kilometrora dagoen Garoñako zentral zaharkituak, 42 urteren ondoren ez du energia nuklear gehiago sortuko, Espainiako Gobernuak ixteko erabakia hartu baitu. Funtzionatzen segi zezala nahi zuen, baina horretara derrigortu dute herri mobilizazioek eta oposizio politikoak. Zentral nuklearraren itxierak, ordea, beste arazo larri batzuk sortuko ditu, eta horien aurrean hobe gendake erne ibiltzea. Zoritako zentrala eraisteko 20 urte beharko dira eta Vandellósekoak bikoitza beharko du. Adituen ustez Garoñarekin gauza bera egitea askoz gehiago kosta daiteke, bere diseinuaren ondorioz kutsatuago dagoelako. Hortaz, Garoñaren arrisku erradiaktiboak hamarkadatan segituko du bizirik. Horregatik da hain beharrezkoa zentrala eraisteko plan bat martxan jartzea lehenbailehen.

Garoñaren itxierak ia 300 lanpostu zuzen deuseztatzea dakar. Gobernuak eta erakunde espainiar nahiz euskaldunek berehala heldu beharko liokete inguru hartako ekonomia berraktibatzeke plan bati, lanpostu alternatiboak sortu eta herritarrek migratzera derrihorturik egon ez daitezela.

Beste arazo bat, eta ez txikiagoa, hondakin erradiaktiboen manipulazio eta pilatzearekin dator. Garoñaren kasuan 500 tona metriko dira. Zer egingo dugu hondakin horiekin? Espainian egin nahi zuten hondakin erradioaktiboentzako biltegiaren proiektua geldirik dago eta materiala garraiatzea oso garestia da. Agian, zentraletan "behin-behineko" biltegiak irekitzeko tentazioa izan dezakete agintariak. Garoña itxiko dute eta ez du energia nuklearrrik produzituko, baina herritarrentzat oso kutsagarria eta arriskutsua izan daitekeen hondakin erradioaktiboentzako biltegi bihurtu dezakete. Adi beraz, hau ez da amaitu. Garoñak hor segitzen du.



ELINDEPENDIENTE.COM

Galizia suntsitzen ari den sutea

GALIZIA. Galizia sutan dago. Urriaren 13az geroztik, 80 sute izan dira lurralde osoan. Aldizkari hau ixteko unean, hiru dira hil diren pertsonak, eta bi lagun desagertuta daude suak hasi zirenetik. Pontevedran gertatu dira sutarik handienak. Herritarrek baliabide falta salatu dute sua itzaltzerako orduan. Apropos piztutako suak izan direla uste du Xuntak. Bestalde, historiako sutarik hilgarriena kiskaltzen ari da Kalifornia (AEB); hildakoak eta desagertuak ez dira gutxi bertan.

Konpentsazio funtsa amiantoaren biktimeentzat

Andoni Mikelarena
@andonimik

40 urteren ostean, konpentsazio funtsa izango dute amiantoaren biktimek. Eusko Legebiltzarrak bultzatu du lege proposamena, aurreko agintaldian Gasteizko parlamentuan onartu ostean. PP abstentitu egin da, gainerakoek alde bozkatu dute.

Aldaketa

Funtsa sortzea onartu du Espainiako Kongresuak. Orain arte, biktimek justiziaren bidea hartzera behartuta zeuden indemnitzazioa jaso ahal izateko, auzitegiak onartu behar baitziren gaixotasun profesional bat zela amiantoak eragindakoa.

Beste lekuetan

Beste herrialde batzuetan urteak daramatzate indemnitzaziorako funtsek martxan. Frantzia, Belgika eta Herbeheretan, besteak beste. Frantziako Estatuan, 2001etik amiantoaren biktimek konpentsazio funtsetik jasotzen dute indemnitzazioa.

Hildakoak

Amianto asko erabili zen 2001. urtera arte industrian eta eraikuntzan. Espainiako Estatuan, 1994-2008 urteen artean 3.943 lagun hil dira amiantoaren ondorioz eta hurrengo 20 urteetan hark eragindako gaixotasun kopurua handitzea espero da.

TERRORISMOA



276

hildako zenbatu dituzte aldizkari hau ixteko unean, baina 500 bat izatea espero da hil edo zauritu larrien kopurua, Somalian inoiz izandako atentaturik handiengan. Hiriburuan gertatu da.

2011

urtetik al-Qaida erakundearekin lotura estua duen Al Shabab talde islamistari egotzi dio eraso Gubernuak.



ARABAKO GARBITZAILEAK

Mobilizazioekin hasi dira Arabako garbiketa arloko langileak, hitzarmen duina lortzeko. 2012tik soldatak bere horretan mantentzeagatik kexatu dira langileak. Sindikatuek eta bi patronal ezberdinek oso postura ezberdinak mantentzen dituzte.



PRIBATIZAZIOA

Osasungintzako gastuaren laurik bat finantzazio pribaturako da EAEn, Medicumundik azaleratu duenez. Desoreka sozialen eta osasunaren privatizazioaren arteko loturak aztertzeko ikerketa egin du eta nabarmendu du arreta desegokiak desoreka sozialak handitu ditzakeela.



PAUSOKA EGUNA

Pausoka Eguna ospatu dute Urnietan. Behar bereziak dituzten haurren guraso elkartea da Pausoka, "gure seme-alaben integrazioa eta eskubideak" lortzea helburu, eskolan, lanean eta beste edozein arlotan.

Maria urakanak baino lehen zorrak suntsitu du Puerto Rico kolonizatua



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Irailaren 20an *Maria* 5. kategoriako urakanak astindu zituen Antillak, kategoria bereko *Irma*-k jipoitu eta hamabost egunera. Txikiziorik handienak jasandakoen artean dago Puerto Rico, teoriarik AEBen probintzia baina benetan konpainia yanki handien kolonia dena. Zor publiko erraldoi baten atzaparretan harrapatuta, zikloiak eragindako kalteei aurre egiteko ahalmenik gabe bizirautera kondenatuta daude puertorricarrak.



Maria urakanak Puerto Rico uhartera hondoa jota utzi duela esatea ez dirudi exajerazioa. Nafarroaren tamainako lurraldean lau milioi biztanle –Gipuzkoaren jende dentsitate berdintsuarekin– biltzen dituen Karibeko uharteari zikloiak 8.000 milioi dolarreko kalteak eragin dizkio, 43 hildako, nekazarien uzta guztien %80 birrindu, biztanleen lautik hiru argindarrik gabe utzi, herri-tarrak hilabete luzez oinarritzko zerbitzurik gabe bizirautera kondenatu...

AEBetako agintariak presa handia dute independentistak zanpatzerakoan, 30 urte espetxean pasata maiztzean etxeratu den Oscar Perez Riverak ondo dakienez, baina uhartera jendeari laguntzea dagokienez patxadaz jokatzen dute: aste bete behar izan zuen Donald Trumpek Puerto Ricoko okupatzeko... eta nola okupatu! Munduari bira eman dioten argazki lotsagarrietan ageri da oligarka harroputza jende kaltetuei komuneko paper zorroak jaurtitzeko.

Puerto Rico, ordea, *Irma* eta *Maria* iritsi baino askoz lehenagotik zegoen krisian amilduta, zorrak preso hartua, 74.000 milioi dolarreko zor publikoa batetik, zaharren pentsioak bermatzeko 49.000 milioi gehiago bestetik. Urakanaren ostean, *The Intercept* hedabide aurrerazaleak zor publikoari etekina ateratzen dieten banku eta finantza erakundeetara jo du, ea Puerto Ricorik laguntzeko prest dauden galdezka. 51 konpainietatik hiruk bakarrik eman

dute laguntzaren bat kaltetuentzako, hiru urte artean 1,25 milioi dolar.

Egun gutxiaren buruan, ordea, hartzekodun taldeak Puerto Ricoko agintariari jakinarazi die prest zeudela zorra osatzen duten 74.000 milioietatik 150 barkatu eta gainerakoetatik batzuk birfinantzatzeko... zor berri gehiagorekin. Agintariak ezetz erantzun diete, ez duintasunagatik, baizik eta beren erakundeek mailegu gehiago beren gain hartzeko ahalmenik ez dutelako.

Zerbaitetarako balio izan badute zikloiok puertorricarrentzako izan da berriro munduan zenbait jende oroitu dezan AEBek Karibean daukan kolonia honen drama, hurbiletik ezagututakoan zirrara eragiten duena. Ehun urteko morrontza kolonialaren azken emaitza baita, historiari erreparatzea komeni da.

Espainiak 1898an Kuba galdu zuenean –120 urte geroago espainiarren subkontzientean oraindik odola isurtzen duen zauria–, galdu zituen ere Filipinak, Guam eta Puerto Rico. Azken biok gaur ere AEBen eskuetan segitzen dute. Puerto Ricorik 1952an eman zioten autonomia partzial bat, estatus bitxi batekin: sekula ez da independente izatera iritsi baina sekula ez da bihurtu erabateko AEBen osagai.

Puertoricarrek AEBetako nazionalitatea daukaten arren, ez dute parte hartzen lehendakariaren bozketan, bai ordea bizia arriskatu behar dute beraiek bozkatu gabeko lehendakariaren gerretan. Hori bezain garrantzitsua da 1920an

Washingtonen ezarritako *Merchant Marine Act* legea, arau kolonial bat Puerto Ricoko portuetan lehorreratzeko debekatzen diena yankiak ez diren munduko itsasontzi guztiei. Uhartearen sal-erosketa guztiek AEBetako banderako ontzietan irten eta sartu behar dute, derrihorrean kontinenteko kairen batetik pasatuz. Berrikitan proposatu zenean debekua ezabatzea, itsas-konpainien lobbyak kanpaina gogorrez moztu zien bidea, horrek terrorismoaren aurkako gerraren garaiotan AEBen segurtasuna kolokan jarriko omen lukeela eta.

Puerto Ricorik "Junta" batek agintzen du
CADTM zor publiko ez legitimoen auditoriarako elkartearen kalkuluetan, Puerto Ricoren zorra AEBetako beste estatu guztien batz bestekoaren halako 10ekoa da. Zorpetze harrigarri horren oinarrian uhartearen izate koloniala dago. Alde batetik, itsas garraioa yankien esku uzteak ekonomia osoan duen eraginaren ondorioa.

Beste faktore bat da lekuko gobernua- ren sarreren murrizketa, paradisu fiskal izatearen kalteak. Washingtonen erabaki zuenetik Puerto Rico erabiltzea finantz konpainientzako paradisu fiskaltzat, beren sosak bertara dakartzatenei zerga gabetze hirukoitzak oparitzen die: ez diote zergarik pagatzen ez AEBetako gobernari, ez Puerto Ricokoari eta ez udalei. Desoreka horien errematea ekarri dute 2008ko krisiak, turismoaren ahultzeak eta azken bi urteotan esku-



Jonathan Ernten argazkian, Donald Trump –sukaldeko esku-papera jaurtitzen– Guaraybo herrian Maria urakanak kaltetuei janari eta etxeko hornidurak banatzeko ekitaldian. Jende asko haserrarazi du kolonialismoaren jokabiderik lotsagabeena erakusten duen irudi honek, zerbitzu publikoak honoa jota dauzkan Puerto Ricon uhartera zorpetu duten aberatsak berak ogi-apurak banatzen ongizate gizartearen mahaitik kanporatutako txiroei.

neko agintariek herritarrei ezarritako austeritate neurriek.

CADTM erakundetik Pierre Gottiniauxek honela laburbildu zituen 2016an Puerto Ricoren kiebraren ondorioak: “Populazioak benetako krisi humanitarioa bizi du, txirotzearen eta berdintasun ezaren larritzearekin. Zientoka eskola kendu dituzte, ospitaleak itxi langile edo diru faltaz, AEB kontinentalera doazen gazteen kopurua laukoiztu egin da eta segurantzaz soziala lehertzeko zorian dago: jorنالen jaitsierak kotizazioen jaitsiera ekarri du, honek diru-laguntzen murriztea... Puerto Ricon gaur haurren erdiak baino gehiago txirotasunaren mugaz behetik bizi dira”.

Zor ez legezko hori nola pilatu den ikusteak erakusten du mugarik ez dutela bankuen eta finantza erakundeek ez diru-goseak eta ez diru publikoen

lapurretarako sistema berriak asmatzeko ahalmenak. Puerto Ricok azken urteotan bere gain hartu duen zorraren erdia CAB *Capital Appreciation Bonds* deituetan kolokatuta dago. Bonoongatik administrazioak bankuei hasieran ez die ordaintzen interesik, hauek urtero kapitalean pilatzen doaz interes berriak gehituz... Amaierarako gertatzen da Puerto Ricok CABetan emititutako 4.300 milioi dolarrek denborarekin bihurtu direla 37.800 milioiko pagakizun... %785 interesetan!

Gaur ezin ordainduzko zorra biharko zor handiagoz estaltzeko teknika erabili da enpresa publikoekin ere. Hauek, San Joseko gobernuak daukan aipatu zor itzelaz gain, beste 134.000 milioi dolar gehiago zor dizkiete banku eta funtsei, eta horietatik 61,5 dagozkie aurreko zorren berfinantziazioei.

Pagatu ezinen eltzea lehertzeko zorian zegoela eta, 2016an Washingtongo agintariek kontrol kabinete bat sortu zuten, ofizialki *Fiscal Control Board* izendatu arren jendeak *La Junta* deitzen duena: *Promesa* izen probokagarria hartu duen legearekin, herritarrentzako murrizketa gehiago, administrazioaren argaltzea eta pribatizazioen ugaritzea ekarri ditu. Errezeta bera mundu osoan.

XXI. mendean kolonia izatea zer den jakin nahi duenak, begiratzea besterik ez dauka Puerto Ricoko ordena ekonomian agintzen duen *Junta* nork osatzen duen. Ahotsa bai baina botorik ez daukan Puerto Ricoko gobernadorearen ondoan, Banco Santanderreko bi buru, konpainien kiebreten berezitako aholkulariak, korporazioen abokatuak... *Maria*-k egin-dako hondamendia ez dute alferrik galduko esklaboak are gehiago zukutzeko. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Edurne Koch, Chrysallis Elkarteko kidea

«Direna izatea baimentzen zaien lehen belaunaldia dira haur transexualak»

Urteak daramatza lanean UEUko Nafarroako arduradun, askotan korrontearen kontra, unibertsitate horren balioen alde. Duintasun eta identitateen aldeko beste ekimen handi batean dabil buru-belarri: bere haur txikiena bezala, transexualitate egoeran dauden haurren eskubideak aldarrikatzen ditu Chrysallis Elkartetik.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Argazkilaritzarekin aspaldiko harremana duzue familian, ezta?

Aita, aitona eta birraitona argazkilariak ziren. Birraitona Alemaniatic Donostia-
ra etorri zen 1898an eta argazki estudioa zabaldu zuen. Nik hautatu nuen negozioarekin jarraitzea aitak utzi behar izan zuenean. Imajinatzen dut lau ahizpetako batek hartu behar zuela erreleboa eta ni izan nintzen.

Beraz bokazioa edo beharra?

Akademian ikasten hasi nintzen, baina aitarekin zuzenean ofizioa ikasteko aukerarik ez nuen izan, gaixotu egin baitzen. Aitarengandik txikitatik ikasi nuen ordea gauzak begiratzeko modua. Horrela, beraz, bat-batean negozioaren zama nire gainera etorri zen 19 urte bete berrian. Handik gutxira *Euskaldunon Egunkarian* lan egiteko aukera sortu zitzaidan eta bi lanetan batera denboraldi batez aritu nintzen, bietako bat hautatzeko unea iritsi zen arte. Erabaki nuen negozioa ixtea izugarritzko zama zelako niretzat. Prentsan egin ahala ikasi nuen argazkilariaren lana. Gustura

ibili nintzen lehen urteetan, baina gero digitalerako jauzia etorri, papera krisian sartu eta ondorioz argazkilariei kristoren presioa sartu ziguten. Ordutegi finkorik gabe, asteburutan lanean, presioa, kaleratzeak... jasangaitza. Zortzi urte pasatuta, utzi egin nuen. Krisi pertsonal handi bat izan nuen. Denarekin moztu eta Nafarroara etorri nintzen. Imoztar batekin maitemindu eta hona etorri nintzen bizitzera.

UEUra nola iritsi zinen?

Lehen bi seme-alabak eskolan hasi ondoren ikusi nuen iragarki bat lanpostu horretarako. Aurkeztu eta hartu ninduten. Bederatzi urte pasa dira dagoeneko. Oso proiektu polita da.

UEUrentzako haize berriak Nafarroan orain, ezta?

Aldaketa itzela. Azken urteotan UEUk ez ezik, euskalgintza osoak pairatu behar izan duen bazterkeria ikusita oraingo egoera izugarria da. Alfonbra gorria jarri digute, diru laguntzak, harrera ofizialak...

Itsuskeria asko jasan behar izan duzue?

Aurrekoen politika moldea horrelakoa izan da: euskararekin lotua dagoen guztia satanizatzen dute. Nafarroa inbaditzera datorren EAEko jendea bagina bezala tratatu gaituzte beti. "*Que-vienen -los-vascos*" mamu horrek funtzionatu du eta funtzionatzen du oraindik.

Gogoan dut nola Xabier Azanza Euskarabideako zuzendariak gure edukie-

Edurne Koch Elizegi

Irun, 1973

Duela hamaika urtetik Nafarroako UEUko arduraduna da, baina hori baino lehen argazkilari profesionala izan zen familiaren estudioan eta *Euskaldunon Egunkarian*. Nafarroako Basaburuko herri txiki batean bizitzea hautatu zuen. Hiru haurren ama da. Txikiena, zakila duen neskato bat da. Chrysallis Euskal Herria, transexualitate egoeran dauden haur eta gazteen familien elkarteko kidea da.





tan Euskal Herriaren aipamena egiten zela leporatu zigun behin eta berriz.

Boikota hain handia izan da ezen jende asko orain ezagutzen ari baita UEU Nafarroan. 40 urte daramagu udan ikastaroak antolatzen Iruñean eta hamabost urte udazken eta udaberrian.

Zergatik da beharrezkoa UEU gaur egun?

Helburu nagusia euskal unibertsitatea sortzea da. Hori politikoki ezin da gauzatu gaur egun, horretarako erabakimen sendorik ez dagoelako. Egoera horretan UEUK egiten duena da erdaraz aritzen diren unibertsitate horiekiko elkarlana sustatzea euskarazko graduondoak eta ikastaroak eskainiz, euskal komunitate zientifikoa bildu eta haien arteko sareak sortuz, eta unibertsitate-gaiak ekoitzi eta gizartearen esku jarri.

Erakundeek eman diguten babesari esker eta egin den zabalkunde lanarengatik matrikulazioa boskoiztu egin da azken bi urte hauetan. UEU ezagutzen duenak gero berarekin jarraitzen du, euskarazko formakuntza beharra dagoelako.

Udako unibertsitatea, baina urte osoan lanean?

Gainera orain balantza aldatzen ari da: lehen udakoa izaten zen eskaintza nagusia, eta orain aldiz, indar handia hartu dute udazken eta udaberriko ikastaroek.

San Ferminen ondoren UEUKo ikastaroak ziren Iruñeko basamortu latza alaitzen zuten ekimen bakanetakoa, baina data aldatu duzue.

Bi urtez egin ditugu ikastaroak ekainaren bukaeran eta oso emaitza onak jaso ditugu. Beste aldaketa handi bat izan da erdigunera ekartzea. Urtez urte egoitzaz aldatzen ibili gara ezinbestean. Orain, azkenean, udako ikastaroak egiteko Ezpeleta Jauregia eskaini digu Nafarroako Gobernuak, Iruñeko bihotzean, Kale Nagusian. Aldaketa ikaragarria izango da.

Hiru haurren ama izatea ere ez da lan makala izanen.

Hiru seme-alabak hezteko nire lanik konplikatuena da zalantzarik gabe!

Zergatik erabaki zenuten herri txiki batean bizitzea?

Gure seme-alabei askatasunean hazteko aukera eman nahi genielako. Oso pozik gaude, gasolinatan ordaintzen ari garen arren. Hemen bokataren bila etortzen dira etxera eta ondorengo orduetan ez ditugu ikusten. 6 eta 15 urte bitarteko neska-mutilak askotan ibiltzen dira jolasean, elkar zaintzen, gauzak egiten, elkarri gauzak irakasten... eta tamalez hori gaur egun hirietan ez da asko ikusten. Nire ustez ikasketa prozesu garrantzitsua kalean dago.

Ni beste modu batez izan naiz hezia, umearen hitzak entzuten ez ziren garaikoa naiz eta saiatu naiz gure haurrei kontrakoa transmititzen, arau batzuekin, noski, horiek ere beharrezkoak direlako. Gainera hemen tempoa desberdina da, dena pausatua. Iruñetik etorri gero lasaitasuna eta naturaren babesa sentitzen dira. Hirian beti estimulua pila dago. Alaba nagusiak dio nahiz eta urte batzuk kanpoan ibili hona itzuli nahi duela bizitzera. Pozgarria da.



Zuek Aizarotzen bizi zarete. Zer du berezi herri horrek?

Hemengo udalak duela zenbait urte apustu batzuk egin zituen jende gaztea erakartzeko. Ernaizu emakumeen kooperatiba bultzatu zuen, adibidez, emakumeak bertan lan egin eta bizi ahal izateko eta Aizarotz herria sortu zuen. Lau etxe soilik ziren, bi familiaren esku zeudenak, eta etxe txiki eta merkeak egin zituen gazteak erakartzeko. Orain oso herri gaztea da. Bizpahiru adineko daude, besterik ez. Erroldatutako 176 pertsona gaude, horietatik 58 adingabeak. Bizitzeko beste filosofia baten bila etorritakoak, asko, eta komunitatearen aldeko lanean gabiltza, ekimen ugari horretara bideratuz.

Zuen hirugarren umea Beñat da, zakila duen sei urteko neska.

Beñat etorri da eskema guztiak haustera. Zakila duen neska da, baina ez ginen hori ikusteko kapazak izan lau urte bete zituen arte. Ikusteko gai izan nintzen une hori ez zait sekula ahaztuko. Ni barretik hautsi egin nintzen. Haurra bi urtez aritu zen guri modu desberdinetara

esaten erratuta geundela. Bera ez zela guk pentsatzen genuena. Oso berandu hasi zen hitz egiten eta ordura arte ez ginen gai izan bere beste mezu horiek ulertzeko. Mundua ulertzeko modua erabat aldarazi zigun. Oso potentea da. Nahiz eta buru-belarri ibili borrokan, Chrysallis EH elkartean, eta Beñati eskua eman eta bere ondoan nagoela lehen mementotik esan, gogorra izaten ari da, emozioak pil-pilean ditut.

Haur asko dago egoera horretan?

Elkartean 500 familia gaude Espainiako estatuan, horietatik 50 Euskal Herrian. Pentsa, Euskal Herriko Elkarte zortzi familiak osatu zuten 2015. urtean, beraz bi urtean izugarri hazi gara. Haurren transexualitatea bereziki tabua izan da orain arte eta hori apurtzera etorri gara. Umeok direna izatea baimentzen zaien lehen belaunaldia dira eta oso handia da gizarte guztiarendako, aniztasunaren diskurtsoan jartzen gaituelako. Transexualitate egoeran dauden helduek esaten digute haurtzaroa galdu zutelako etengabe ezeztatuak izan zirelako;

» “Boikota hain handia izan da ezen jende asko orain ezagutzen ari baita UEU Nafarroan”

» “Aizarotz herri txikian bizita gure seme-alabei askatasunean hazteko aukera eman nahi genien. Oso pozik gaude, gasolinatan ordaintzen ari garen arren”

» “Nire begiradarekin Beñati transmititzen nion oso femeninoa zen seme bat neukala, eta onartzen nuela, baina berak bilatzen zuena ez zen hori. Orduan hasi zen etengabe, egunero-egunero, galdetzen: ‘Ama, ni neska naiz?’”

» “Haur transexualei beren identitatea ukatzen ari zaie, guztion partetik eta egunero”

» Autobus transfoboaz: “Kritikak eta astakeriak esaten dituztenek ez dituzte gure haurrak eta familiak entzun”



**THE
GARAGART
OF
BREWING!**

 GARAGART
 GARAGART
 GARAGART_BREWERY

T: 665 751 834
 INFO@GARAGART.COM
 GASTEIZ



**TALLERES
MITXELENA
S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
 Fresadora: 10.000 x 3.500
 Barrenatze mekanizatu

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
 info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

haien suizidio saiakera tasa oso altua da, beldurtzekoa. Horregatik errealitate hori gizarteratzearen garrantzia.

Adin guztietako haurrak ditugu elkarrean, baina jakintza hazi ahala gero eta nerabe gehiagok erabakitzen dute pausoa ematea, beraien egoera ulertu eta ausartu egiten dira. Nerabeok kristoren motxila daramate, baina behin onartuta eta gizarteratuta, zoriontsu izatera heldu daitezke.

Haur transexualei beren identitatea ukatzen ari zaie, guztion partetik eta egunero. Oso gogorra da. Gehienek izugarritzko nortasuna dute, baina beste batzuek ez. Batzuetan arazoak sortuz adierazten dute zerbait gaizki doala. Batzuk, adibidez, beren organo genitalak mutilatu nahian hasten dira. Zorionez ez da gure kasua. Beñatek naturalki eraman du prozesua.

Nola jakin zenuten Beñat neska zela?

Txiki-txikitatit soinekoak janzen zituen, amonaren eraztunak, oihal bat buru gainean ile luzea balu bezala, makillatzen zen, azazkalak margotu... Femeninotzat jotzen diren portaerak muturrera eramaten zituen. Hori dena onartzen genio la ikusita, haurra hasi zen mutilen gauzak baztertzen, mutilak baztertzen, aita eta aitona baztertzen. Antsietate zantzuak ere hasi zen erakusten eta ulertezinak zitzaizkigun amorru aldiak izaten. Sentitzen zuen ez zela zen bezala onartua eta hitz egiten hasi zenean neska zela esan zuen. Guk esan genion baietz, nahi zuena izango zela eta guk igual maitatuko genuela, baina mutil tratatzen jarraitu genuen. Erdaraz hitz egitean artikulua maskulinoa erabiltzen genuen. Nire begiradarekin umeari transmititzen nion oso femeninoa zen seme bat neukala, eta onartzen nuela, baina berak bilatzen zuena ez zen hori. Berak bere identitatearen onarpena bilatzen zuen. Orduan hasi zen etengabe, egunero-egunero, galdetzen: “Ama, ni neska naiz?”.

Informazio bila hasi zineten.

Bagenekien zerbait gertatzen zela, baina ez genekien zer. Hasi ginen informazioa biltzen eta beste guraso batzuen testigantzak aurkitu genituen. Orduan argi ikusi nuen. Hurrengo egunean galdetu zidanean esan nion: “Bai, zu neska zara. Zakila duen neska eta zu bezala beste askotxo ere badaude”. Ordura arte ikusia ez nion barne poza atera zuen bat-ba-

tean. Geroztik ez dit berriro galdetu. Nire onarpena zuen eta gero hasi zen familia osoarena bilatzen. Bere aitarekiko harremana aldatu zen, eskolako mutilekin berdina eta oro har bere ezinegonak desagertu ziren, alaitasunari bide egiteko. Haur gehienek patroik berberak segitzen dituzte: oso femeninotzat edo maskulinotzat jotzen ditugun jarrerak muturrera eramaten dituzte benetan sentitzen dutena ikusarazteko. Inork ez du atzera egiten. Beñat oso txikia da eta garaiz lortu du onarpena, baina ez da ohikoa, nahiz eta sufrimendua eragozteko prest gauden gurasoak gero eta gehiago garen, asko daude oraindik ezeztatuak direnak. Azken datuen arabera, mila umetik bat transexualitate egoeran jaiotzen da.

Zer izan da Chrysallis Elkartearen zuentzat?

Chrysallis niretzat argia izan da. Haiei esker ulertu dut etxean zer nuen. Oso zaila da denarekin puskatzea. Presio sozialarengatik, sinesmenengatik... familia askok etxe barruan dituzte arazoak. Beñatek izugarritzko zortea izan du jaio den tokian jaio izanda, familia honetan, komunitate txiki honetan eta eskola honetan. Hemendik ateratzen denean 16 urte izango ditu eta ordurako nortasun oso sendoa izango du. Orain gu ari gara etengabe mundu guztiarekin hizketan, azalpenak ematen Beñat neska bezala onartua izan dadin. Igeriketara apuntatu genuen, adibidez, eta denei banan-banan azaldu behar izan genien neska dela eta nesken aldagelan aldatuko dela. Beste haurrak bezala hazi nahi dugu eta ez dadila desberdina sentitu. Bailara oso-ko neska zakildun bakarra dela jakitea kudeatzearekin nahikoa du. Beñat oso txikia da eta ez daki ezer eramaten ari garen borrokaz. Guk errespetuzko begiradak jasotzea nahi dugu, gutxienez. Denek uler dezaten eskatzea ezin da, baina errespetua jende guztiari eskatu behar zaio. Oso kontu polita da umeekin lantzeko: denok desberdinak gara eta denok errespetu bera merezi dugu.

Zer uste duzu autobus laranja moduko ekintza transfoboez?

Ezjakintasunak ekartzen ditu beldurrak eta ondoren fobiak. Errealitate hori dagoela gizarteratzea da gure lana. Kritikak eta astakeriak esaten dituztenek ez dituzte gure haurrak eta familiak entzun. Familien testigantzak adituko baliatuzte, desberdin jokatuko lukete. ■

Espainiaz

Mugitzen ez denak ez ditu kateak sentitzen. Eta kateatu zaituen horrek aske zarela esango dizu alde egiten saiatzen zaren arte. Baten bati zalantza izpirik geratzen bazitzaion, Kataluniako aferak argi utzi du Espainia ezker-eskuin zer den.

Eskuin. Espainian ez du eskuinak agintzen, Espainian muturreko eskumak agintzen du. Francoren espirituak kuku egin digu berriz ere azken asteetan. Diktadurako errifleen berunez egin zen konstituzioaren moldea, eta molde hori da herriak lotu eta *manu militari*-a demokraziaz mozorrotzeko baliatzen dena. Nazionalismo kolonizatzaile eta autoritario atzerakoiak hartu ditu Espainiako hiriburuak. Egia aitortzera, irudiek beldurra ematen dute.

Ezker. Espainiako batasuna tarteke dela, Espainian ez dago ezkerrik. Herrien determinazio librea onartzen ez duen artean eskuinaren erritmoan dantzan arituko baita. Kataluniako independentziarako prozesuak zerbait erakutsi badu, hauxe da: Espainiako Estatuan, gaur gaurkoz, halabeharrez, aske izateko bidea aldebakarrekoa izan behar da edo ez da izango. Espainiako Gobernu eta errealtate soziologikoa zein diren aintzat hartuta, negoziatutako irtenbide bat aldarrikatzea ezer ez egiteko esatearen parekoa da. Gainera, elkartasuna ez adierazteaz gain, subiranotasuna berreskuratzeko lanean dagoen herri bati zilegitasuna kentzen ahalegindu dira, eskuinak gidatutako nazio-estatuaren ideia kolonial bera partekatzen dutenaren seinale. Besteak beste, ustez ezkerreko diskurtsoa darabilen La Sexta telebista kateak Intereconomía dirudi Kataluniako gaiak jorratzerakoan. Besterik ezin zitekeen espero Planeta



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Puigdemontek ez du espero zen errepublikaren aldarrikapenik egin, independentzia deklarazioaren ondorioak atzeratzea eta elkarriketari azken aukera ematea hobetsi baitu. Nazioarteari begira prozesuari zilegitasun osoa emateko balio badu, ondo etorria izan dadila erabakia, baina arriskuak ere nabarmenak dira eta urratsak arin eman beharko dituzte

Taldearen menpe dagoen kate baten-gandik, pozik egongo da Jose Manuel Lara fundatzailea, bando frankistan borrokatu zen hori berori. 1978ko

erregimena lotzen duten kateak dira Espainiako telebista kateak.

Deskribatutako Espainia beldur-garri horretan, Carles Puigdemont presidenteak erreferendumaren emaitzak onartu eta herritarren mandatua bere egin du Katalunia errepublika independente bihurtzeko. Hala ere, ez du espero zen errepublikaren aldarrikapenik egin, independentzia deklarazioaren ondorioak atzeratzea eta elkarriketari azken aukera ematea hobetsi baitu. Nazioarteari begira prozesuari zilegitasun osoa emateko balio badu, ondo etorria izan dadila erabakia, baina arriskuak ere nabarmenak dira eta urratsak arin eman beharko dituzte. Estrategia inteligentea izan daitekeen arren, iritsi diren tokira iritsi badira Espainiako Gobernu eta epaileen esanei muzin egin eta Kataluniako herriaren arabera euren kasa aurrera egin dutelako izan da. Aldebiko irtenbide bat, zaila eta ia ezinezkoa izanik ere, aldebakarreko bidea muturrera eramatearen ondorioz soilik gerta daiteke. Espainiak badaki ez daukala zer eskaini Kataluniak demokratikoki bertan geratzea erabaki dezan. Errepresioa eta beldurra dira ezagutzen duten hizkuntza bakarra, elebakarrak dira horretan ere.

Kataluniako herriak independentziara abiatutako bide zirraragarri honen kapitulu asko falta zaizkigu ikusteko, baina, zalantzarik gabe, 78ko erregimenaren bukaeraren atarian egon gaitezke eta horrek bide bat zabaltzen digu "euskal erditarroi". Badirudi, ordea, behiak trenari bezala so gaudela. Espainian bizitzea jada jasangaitza bada, imajina dezagun Katalunia gabeko Espainiako Estatu. Bada, pairatu nahi ez badugu, guk ere mugitzen hasi beharko dugu, kateak sentitzeko bada ere. ■

Eskola ordenatuak

Entzun nuen behin txiste (nire ustez) arrazista bat. Lagun batek besteari arrazista izatea leporaturik, hark erantzuten zion: “Ez, ez, ni ez naun arrazista, ni ordenatua naun, beltzak beltzekin, zuriak zuriekin...”. Parentesi artean jarri dut “nire ustez”, izan ere, txiste hori arrazista bada, zer dira gure eskolak arrazistak ala ordenatuak?

Gasteizen maiz salatu dugu eskola-segregazioa, iaz lau eskoletan etorkinen seme-alaben kopurua %80 baino altuagoa zen, hogeietan %30 baino altuagoa. Bat izan ezik, denak publikoak. Hurrengo urteetan haziko dira portzentaje ordenatuak, izan ere, eskola batean ikusten denean ume *koloretsuak* sartzen hasi direla, urte gutxiren buruan pasatzen da eskola “normal” bat izate-tik ghetto-eskola bat izatera. Ardura-dunak Hezkuntza Saila, gurasoak eta eskola sistema bera dira.

Izan ere, arazoa aspalditik dator, eta ez da soilik Gasteizko gauza arraro bat. Esango nuke eskola bat baino gehiago dauden herri guztietan dagoela. Gurasoak dauden aukeren artean hautatu behar dugu: publiko ala kontzertatu, kristau ala laiko, euskara gehiago ala gutxiago, abertzaleago ala Waldorf hezkuntza, Montessori metodoa ala anarkista. Txikitatik nor bere bandokoa da.



Ruben Sánchez Bakaikoa

EUSKARA IRAKASLEA

@arlotea

Gaur egun, eskola-segregazioa salatzen dugunean, ez da hainbeste egoera aldatu dela, baizik eta heldu diren azken etorkinen umeen koloreek agerian utzi dituztela eskola-sistemako bandokeria eta klasismoa berriz ere

Nik A eredu kristau eskola batean ikasi nuen. 50 metrora A eredu eskola publikoa zegoen, (arlote batzuk, gaiztoagoak eta batez beste beltzarana-

goak). Gasteizko “onena” hala ere, igerileku eta polikiroldegia zeuzkan ikastola bat zen. Umeok ez ginen asko nahastu, eta eskolatik kanpo ere, adibidez, bakoitzak gure igerilekua genuen: aberatsenak La Peña, gero Estadio, ondoren Mendizorrotza, azkenik Gamarra (hango urak uherrago). Ba omen ziren batzuk igerilekura joaten ez zirenak.

Gaur egun eskola-segregazioa salatzen dugunean, ez da hainbeste egoera aldatu dela, baizik eta heldu diren azken etorkinen umeen koloreek agerian utzi dituztela eskola-sistemako bandokeria eta klasismoa berriz ere. Islandia aipatzen hitzez betetzen zaigu ahoa. Baina benetan nork nahi du eredu bakarreko eskola sistema bat eta %99 publiko?

Indarrean dagoen eskola aukera herri honen historiaren ondorio da: eskola kristauak, frankismo sasoian euskaraz ikasi ahal izateko sortu ziren ikastolak, eskola “nazionalak”, kooperatibak, irakaskuntza “libre”koak.

Nork berea defendatzen jarraitu ahal dugu ala gizarte osoa modu inklusibo, laiko, publiko eta euskalduntzen duen eredu baten bila joan.

Nik ez dakit, azken batean, euskaldunak jende noble, langile, lagunak lagun... eta ordenatuak gara. ■

ARGIA 2018ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

50€



Iragarpen autobetea



Ainhoa Azurmendi
KIROL AHOLKULARIA

Semaforo gorrian gelditu nintzen. Eskuin aldera begiratu eta atletismoko talde bat ikusi nuen entrenatzen: aurretik, korrikalari profesionalen antzera, eguzkitako betaurrekoak, galtza motxak eta elastiko iragazkorra jantzita, entrenatzailea bizpahiru mutikoez inguratuta. Atzetik, hainbat metroetara, bi neskatxa. Goitik behera behatu nituen erdi korrika eta erdi oinez zihoazen bi neska hankaluze eta atletikoak.

Nire lehen gogoeta jokabide horren zergatia antzematen saiatzea izan zen, kontuan hartuta begi-bistakoa zela neska horiek ez dituztela taldekide mutilen gaitasun fisiko gutxiago; eta nire lehen ondorioa, neska horiek gizarteko estereotipoak barneratuta haietaz espero dena egiten ari zirela.

Behin eta berriz entzuten dugu neska-mutilak berdintasunean hezteko eredu mistoa egokia dela, baita kirolean. Honen harian, hain zuzen, artikulua bat argitaratu berri du Jon Tornerrek ARGIA-n. Nik neuk datuetan oinarritutako iritzia eman nuen, berdintasuna egon ezean, neska-mutilek bananduta parte hartzeko garrantzia defendatuz, eta emakumeek kirolean gorputzaren jabekuntza prozesu bat egitea ezinbestekoa dela adieraziz. Argi eta garbi ikusten dut hori haur gehienek egiten dituzten taldeko kirolean; eta beste kirol jardueretan sexu biek elkarrekin parte hartzeko egokitasuna onartzen dut, betie-

re, hezkidetza bermatzen bada. Artikulu berean, Itsaso Nabaskuesek eskola kirolean “kirol tipiko” horiek ez diren eta neska-mutilek elkarrekin egiten dituzten “aisialdiko” beste adibideak ekartzen ditu, hain zuzen, izotz hockeya edo atletismoa.

Azken batean, ez da jarduera bera egokia edo ezegokia dena, jarduera hori egiten den modua baizik. Egia da gizartean gehien baloratu diren kirolak tradizioz gizonen eremu izan direla, eta ondorioz, gizonak izan direla arlo honetan jakitunak eta trebeziak bereganatzeko aukera gehien izan dutenak. Honek eragina izan du neska-mutilen arteko elkarrekinztan, eta aipatu artikuluan esaten zen moduan, neskek protagonismo eta iniziatiba jokabide gutxiago azaltzen dituzte. Baina kirol arloa gizartearen ispilu da, eta gizarteko desberdintasunak kirol arloan islatzen dira, nabarmenki batzuetan, sotilago besteetan.

Beraz, ezin pentsa genezake berdintasuna sustatzeko nahikoa dela eskaintza aldatzea; arazoa estrukturala da, eta hala eman behar zaio erantzuna. Ziur nago egun korrika egiteko sortzen ari diren emakumezkoen taldeetako partaideek, jabekuntza prozesua bizi baino lehen, semaforo ondotik pasa ziren bi neskak horien erantzun bera emango lidaketela mutilekin entrenatzeko esperientziari buruz. ■

Katalunia, Espainiaren aukera



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Hamaikagarren aldia da Espainiako Estatuaren izaera inperialista eta totalitarioa konstituzioaren atzean ezkutatzen ikusten ditugula PP eta PSOE. Itxurak besterik ez dira, izan ere, Espainiako Estatuan (mundu osoan ez bada) demokrazia hitz hutsa dela antzezlan honetako aktore guztiek ongi dakite. Guztiek. Espainiako ezkerrek ere bai.

Bere burua ezkerrean kokatzen duten espainolek, kontinente oso bat masakratu eta ustiatu zuen inperioaren eta frankismoaren oinordeko izateari utzi eta beste zer edo zer egiteko benetako gogoia badute, Kataluniak bizi duen zapalaketaren aurrean badute giltza bat. Hau katalanen

afera hutsa dela pentsatzea, eta elkartasuna parametro horietan ulertzea, akats bat da. Orain da garbia Espainiako Estatua zer den. Alderdi politikoak, komunikabideak, enpresa handiak eta bankuak eta Europar Batasuna; denak dira ageri bere benetako tokian erretratatuta. Orain da inperioaren zimenduak astintzeko momentua.

Baina non daude bestelako Espainia bat defendatzen dutenak? Elkarretaratze apal pare batekin konformatuko al dira? Gerra zibila irabazi zieten aurrean, kronikoki galtzen jarraituko al dute?

Haiek gabe Katalanek jai dute. Eta euskaldunok, ere bai. ■

Moltes gràcies

Egunak aitzina doaz iritzi honen idazteko epea agortu artean jarduteko gaien zerrenda egiten, ondorio bakarrera heltzeko: zertaz idatzi ez bada Kataluniaz, zertaz idatzi ez bada aspaldiko partez interes, ilusio eta zirrarara eragin dizkigunaz? Nahiz bestalde nehon agertu ez den zer erranik gutxi egon jada, eta ezin jakin hau agertuko denerako zertan egonen den gaia, erremediorik ez. Horrela, esker beroak zuzendu nahi nizkioke azken asteetan hainbat mailatan egunerokotasun geza inarrosi duen herrialdeari.

Hasteko, historian agian berrogeita hamar urteetarik behin baizik irekitzen ez den zirrikitu horietarik baten lekuko bilakatu gaitu; lurralde batek menpekotasunetik ateratzeko bidean luzaz aurrera egin eta noizbait azeleratzen duen momentu hunkigarri hori ez dugu hain hurbiletik berriz ikustekoa bulta batez, eta horrela eredu hurbila bihurtu da Katalunia, gure inertzietatik edo saldukerietatik, gehiegi kostatu eta xurgatu gaituzten lorpen eskasetatik, gure proiektu hilaurretatik hara oroitarazi digu posiblea dela, proiektu abertzaleak bide egin dezakeela eta uxatu gure baitatik errotu diguten espiritu erregionalista galtzailea.

Bestalde, Kataluniak frogatu du mundua kordel bidez antolatu zuten estatu inperialisten sistema hau iraungia dela, denbora kontua dela, agian guk ez, baina gure haurrek bai, ikusiko dutela oraindik asmatzekoa den egitura berrien mundua.

Gero, betikotasun eneagarritik atera gaitu, ez baita gutxi.

Ez da egon egunik azken hiru asteetan, zeinetan ez baitut esnatzean berean emoziorik sentitu ekialdeko gertakariari begira, batzuetan onerako, besteetan txarrerako.


Goizero kafea edaterakoan zenbait detaile ernagarri komentatu ditugu, auzitegieta erabakien haritik, diskurtso



Bea Salaberri

IDAZLEA

@beatxo



Antton Olariaga

idor nahiz hegaldi liriko eta erreplika umoretsuz jositako hitzen lehia deliziosez elikatu gara, aspalditik ezagunak ditugun itsuskeriak ezin ageriagoak gertatu dira, eta mamu zaharrak beren ziloetatik atera... Irriarrarazi gaituzte batetik eta bestetik durduzatu, itozteko ahalegin eta neurri kontzertu guziak gordinki bistaratu.

Harritu gaitu, adibidez ni bezalakoen-tzat surrealista eta ulergaitza den "Espainia" kontzeptu zurrinak, bereizketa guzien gainetik batzen baititu irrazionalki fronte ezberdinak.

Probetxu egin digu, katalanaren ulermen maila egundaino ez bezala emendatu baitugu. Amets eginarazi digute Perpinyatik etorritako boto paperek. Atseginekin entzun diogu Carles Puigdemonti, frantses maila ederrarekin ihardukitzen. Hegoaldeko jendeei zintzarrotsen plazera dastatzeko parada eskaini die.

Gertakariak @cat, #cat eta .cat bihurtu gaitu sarean zilintzo -bistan dena, ez naiz galuez mintzo-, gure denbora lerroak zipatu ditu gaiak, notifikazioa zerbitzuak sutan jarri, gure jario agergatzaileetara hamarka iturri gehitu.

Oroz gainetik, Europako herri gutxitu guziei gogorarazi digu, katalanek bezala, boten hotsa hazten denean, xapinen kentzeko tenorea heldua dela, etsitu gabe.


Horregatik guziagatik milesker: ukamen dugu zer kontatu gure haurrei eta arra-haurrei!

Pertsonalki -eta katalana banintz gutxiago-, ez nuke itzuli nahiko "betiko bizitzara" Betiko bizitza eramateari utzi ziotenetik katalanek, haiek eta gutari-ko anitz sekula baino biziagoak sentitu baikara eta behin hau dastatuz gero, esperantza berrindartuz gero, betikotasunerako itzulerari kiratsa dario. Aldatzea zaila izanik ere, anitzez garestiagoa bailitzaiguke lehengora itzultzea. ■

Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

Erreferendumaren espiritua, defentsarik onena

Badirudi oraindik edozer interpreta daitekeela lerro hauek idazten diren urriaren 16 goizean: independentzia aldarrikatuta dagoela edo ez, eta 155. artikulua indarrean dela jada, baina ez. Era batera zein bestera, Kataluniako independentismoak Errepublikak defendatzeko prestatzen jarraitzen du. Nola egin eraginkorren, ordea?



Xabier Letona
@xletona

Urriaren 1ean Katalunian egindako erreferenduma bertatik bertara bizi izan genuenok altxor oso preziatuarekin itzuli ginen gure etxeetara: burmuinak esaten zigun historia liburuetan irakurtzen diren iraultza horietako bat lehen lerroan ikusi genuela; bihotzak berresten zuen burmuinak esandakoa, barnean sentitzen genuena lurrikara emozional baten gisakoa izan baitzen, egunetan gurekin eraman duguna gure etxeetara, lagun artera, lanera eta, ez gutxitan, baita gure ametsetara ere. Erreferendumaren sindromearekin itzuli ginen, ikusi eta sentitu genuenak bahituta.

Gutako askok hala bizi izan bagenuen gertatutakoa, zer sentituko zuten iraultza haren benetako protagonistek? Ha-

rrotasunaz eta poztasunez gain, sekulako indarra. Eurak ziren iraultza haren subjektu eta, gainera, irabazle atera ziren: bototan, zilegitasunean eta kontakizunean.

“Ez duzue egingo” milaka aldiz entzun eta irakurri ondoren –tertulietan mespretxu eta txantxa doinuz egindako iruzkinetik hasi eta Mariano Rajoyren mehatxu doinu krudeleneraino–, katalan independentismoak erreferenduma egin zuen, hiru zutoinetan sostengatuta: bat, proiektu independentista argi bat izatea; bi, herriaren indarra, herritar eta instituzioen arteko antolaketa eta erresistentzia baketsuan gauzatua; hiru, tresna demokratiko argi eta garbi bat erabili izana, erreferenduma bera.



Urriak 10

Urriaren 1a horrela sentituta bakarrik uler liteke Kataluniako mugimendua independentistak urriaren 10eko arratsaldeko 19:30ean Legebiltzarreko atean jasotako baldekada ur hotza. Aurreko bederatzi egunetan gertatutako guztiak halako egoera nahasi baten ateak zabal zitezkeela adierazten zuen, baina independentziaren aldarrikapena defendatzera joandako inork ez zuen pentsatuko horrenbestekoa izango zenik.

Kontua urriaren 2tik hasi zen egosten ordea. Urriaren 1aren ondoren, kontaketa elektronikoa emaitzak ofizialki ontzat eman zitezkeen astelehenan edo asteartean bertan, eta handik



Urriaren 1ean erreferenduma egin izana ospatu zuten herritarrek; hortik aurrera ezer ez zela berdin izango oso sustraituta zegoen mugimendu independentistan. Egunotan arrakalak sortu dira, baina ideia horretan sinesten jarraitzen du oraindik.

ARGAZKIA: ANC

bi egunera –Erreferendumaren Legeak agintzen zuen gutxienezkoa–, ostegun edo ostiralean, independentzia aldarrikatu. Baina ez zen egin, nazioarteko esparru zabaletan, batez ere Europan, Espainiaren errepresioak gainbeheran jartzen zuen bere irudia eta erresistentzia baketsuak gorantz zeraman Kataluniarena.

Astelehena erabaki zen Independentzia aldarrikapenerako eta, Erreferenduma eta Trantsizio legeak aitzakiatzat hartuta, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen osoko bilkura. Bere eskumenak baliatuta, hurrengo egunerako bere agerpena eskatu zuen Carles Puigdemont presidenteak, bere kapelutik beste untxi bat aterata.

Nahasmena nagusi

Baina untxirik handiena Legebiltzarrean atera zuen urriaren 10eko arratsaldean. Katalunia independentzia aldarrikatzeko prest esnatu zen eta Bartzelonako kaleetan ikusmina ukitu egin zitekeen. Legebiltzarra Mossoek inoiz ez bezala zaindua ageri zen eta zaintza berezi hori ez zen Parlamenta herriar unionista ultrengandik babesteko; Puigdemonten balizko atxiloketaz hitz egiten zen eta Legebiltzarreko planen artean zegoen parlamentariaren batzuk akaso gaua bertan pasatu beharko zutela; legebiltzarreko langileak hainbat lekutatik aritu ziren sofa-oheak eramaten Legebiltzarrera. Edozer gerta ere, Parlamentuan ziren 1.000 kazetari –horieta-

» Orain arte indarrean inoiz jarri ez den 155. artikulua oso zehazkabea da, nahi denerako aukera ematen dio indarrean jarri nahi duen gobernuari, baina inon ez da azaltzen zein errepresio maila erabili behar den milioi bat edo bi milioi pertsona kaletik ateratzeko

tik 300 atzerritarrek- gertaera horien lekuko izango ziren, tartean lerro hauek idazten dituen ARGIAkoa.

Arratsaldeko 18:00etan zen hastekoa Puigdemonten hitzaldia, baina ordu-bete atzeratuko zela iragarri zen ordua helduta. Era guztietako zurrumurruak laster barreiatu ziren telebista kameren kableekin estropezurik ez egitea zaila zen korridore haietan. Independentzia aldarrikatu behar ei zuen Puigdemontek, eta gero denbora bat utziko zuen el-karrizketa eta negoziatorako, batez ere Europara begira. Eta unea helduta, berarengan ohikoa den moduan, hitzaldi ondo atonduaren muinean jaurti zuen erreferendumaren agindua onartzen zuela: “Katalunia estatu independente bat izatea, errepublika forma hartuta”.

Txalo zaparrada kalean, herritarrak pozarren, horrenbeste denbora une honen zain... eta segundu gutxira zaflada: “Solemnitate berarekin, Gobernuak eta nik neuk independentzia aldarrikapena bertan behera uztea eskatzen dugu”.

Hortik aurrera etsipena, nahasmena eta ezkortasuna zabaldu ziren mugimendu independentistan, batez ere lehen orduetan. Arrakalak ikusten ziren jada ordura arteko harresi trinkoetan eta herritarrak beldur ziren ordura arte iraultza egitea ahalbidetu zien armakuttunaren egoeraz, hau da, batasunaz.

Independentzia aldarrikapena bai ala ez?

Oraindik ez dakigu egiazki independentzia aldarrikatu zen ala ez. Nik neuk ezetz interpretatu nuen lehenbiziko egunetan, Kataluniako hainbat hedabide, pertsona eta mezu entzun eta irakurri ondoren. Baina litekeena da erratuta egotea, egunetik egunera indartzen baita oraingoan ezkutuko arma Puigdemonten ambiguetate kalkulatu dela eta biak interpreta daitezkeela, baietz eta ezetz, nahieran. Bere testuak ematen du horretarako aukerarik, baina gainera, osoko bilkuraren ondoren Junts Pel Sík eta CUPek Independentzia Adierazpenaren testua sinatu zuten Parlamentuko beste areto batean, eta hori bada egiazko independentzia aldarrikapen, zalanztarako tarterik uzten ez duena.

Bai, independentzia aldarrikatu zen, diote askok: “Nork dio horretarako Parlamentuan bozketa egin behar denik?” edo “Maciak ere berak aldarrikatu zuen 1934an”. ERCko idazkari nagusi Marta



» Batzuek European jartzen dute esperantza une honetan, bestee independentzia aldarrikapenean, besteak beste, honek defentsa tresnak ematen dizkielako

» Erreferendumaren iraultzaren espiritutik gertuago egonda samurrago defendatuko dute independentzia; urrunduta, egoera korapilatu egingo zaio Puigdemonti

Puigdemontek bilera eskaerarekin erantzun dio Rajoyri, honek entzungor egin eta independentzia aldarrikatu duen ala ez erantzun dezala eskatu dio berriz, eta ostegunera arteko epea eman horretarako.

Rovirak ere esan berri du, “herritarrek bozkatzeko dute independentzia, ez legebiltzarrak”, beraz, baietzak irabazita nahikoa zen Puigdemontek hala adieraztea eta kito.

Bestetik, CUP, ANC eta, besteak beste, PDeCAT edo ERCko sektore batzuek etengabe egiten diote presioa esanez “aldarrika dezala behingoz” independentzia edo “altza dezala suspentsioa”.

Inork ez daki zer gertatuko den, baina dagoeneko onartutzat ematen da Espainiako Gobernuak 155. artikulua indarrean jarriko duela, nahiz eta askoren ustez jadanik indarrean den. Nola aplikatuko da baina? Ez dago batere argi, baina errepresio handiz, edo hori saldu nahi da behintzat. Erreferendumean erabilitako biolentzia etorkizunerako mehatxu izan ei zen batez ere.

"KALEKO MOBILIZAZIORIK GABE EZ DA INOR MUGITUKO"

Katalanez CDRak, euskaraz Erreferendumaren Defentsarako Komiteak dira independentziarantzko urratsetan funtzio ezinbestekoa jokatzeko ari direnak: herritarrak auzoko asanbladan elkartu eta Espainiako Estatuaren errepresioari aurre egiteko antolatzea, desobedientzia ekintzak burutzea eta norbanakoek ardurak eta arriskuak beregain hartzea. *Enpapelem* kanpainaren bidez baietzaren alde egin zuten, eta ilegalizatutako erreferenduma praktikan egitea lortu zuten, asteburu osoan eskolak okupatuz eta bozkakutxak beren gorputzekin babestuz.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIA: PAH_SABADELL

Urriaren 10eko Puigdemonten "independentzia aldarria bai baina ez"-en ostean zer? Errepublikaren Defentsarako Komite bihurtzea erabaki dute, Sabadellen urriaren 14an 100 CDR inguru elkartuta. Urriaren 11n, baldekada ur hotzaren biharamonean, elkartu gara Graciako Lesseps plazan auzoko CDRetako bateko kide Mariarekin. Berak kontatu digu nola hasi ziren lehen asanblada hauek antolatzen, herri eta auzoetan, uda aurretik. Horieta asko ezker independentistak bultzatu zituen, horretarako eskuera zituelako urteetako aldarrikapen sozial eta independentistak, autoantolaketarako gaitasuna, kalea lantzeko kultura, jende sare bat... Hasierako CDR horiek dinamika gero eta handiagoa eta serioagoa hartu zuten, ikusi zutenean erakunde publikoek onartutako urratsak



egikaritzeko eta egoki burutzeko, kaleko antolaketa ezinbestekoa izango zela: "Hasieran asanbladak jende gutxi osatuak ziren, baina erreferendumaren aurreko asteetan Estatuaren errepresioa handitu zen, eta ondorioz, gero eta jende gehiago etortzen hasi zen, sekula auzoko ekintzetan edo manifestazioetan ikusi gabeko jendea ere bai eta ardurak eta arriskuak hartzen hasi ziren, esaterako, kartelak itsasten eta etxera eramaten... asko baloratzen dugu desobedientzia olatu hau". Erreferenduma izan zen desobedientzia ekintza nagusia, eta egun horretan ikusi zen CDRetan aurreko hilabeteetan egin zen lanketaren emaitza, herritarren ahal-duntze erabatekoa.

Egitura paraleloak, autonomoak eta koordinatuak

CDRetan asko landu zuten erantzun bake-tsua ematea, eta bakoitzaren denborak errespetatzea: "Gure indar nagusia kaleko mobilizazioa da eta ez genuen bidean jendea galdu nahi, egoera oso gordinetara aurreratu egin nahi ez zuelako. Denok sentitu gara eroso aukeratzeko poliziaren aurrean noraino iritsi eta horrek indartsu egin gaitu". Lanketa orokor hori CDR guztietan egin zuten, eta ondoren, eskola bakoitzean eman zuten erantzun zehatza "espontaneoago" antolatu zuten, bakoitzak bere eskolan "guk, esaterako, larunbata gauean, bezperan". Telegram bidez bideratu zituzten CDRetako beharrak: halako eskoletan jende gehiago behar da...

CDRen asanbladak irekiak izanik eta segurtasuna zaintzeko, erreferendumaren logistikaz ez zen hauetan hitz egiten. Hori beste egitura paralelo batek eraman zuen.

"Legeak aldatzen dira desobedientzietatik eta kaletik"

"Laburtzeko, aste batzuk izan dira mobilizazio eta autoantolaketa handikoak, Kataluniako Gobernua gaingitu dutenak, ezkerretik eta aurrerantz, gure ustez. Horregatik, astearteko adierazpenak frustrazio handi xamarra eragin zuen. Guk uste dugu, legeak aldatzen direla desobedientzia herrikoietatik. Horregatik antolatu genituen aurreko egunak, eta horregatik defendatu ditugu kaleak hainbeste denboran, eta orain Kataluniako Gobernuari presio egiteko antolatuko gara: aplikatu dezala independentzia adierazpena. Kaleko mobilizazioa izan da gure indarra, horrek ekarri gaitu honaino. Mobilizazio hau gabe Kataluniako Gobernuak ez litzateke hain urrun iritsiko. Aurrerantzean ere kaletik presioa egin ezean, ez da inor mugituko Katalunian, ez kanpoan. Ikusi beharko dugu zein izango diren hurrengo mugimenduak, bai Espainiako Gobernuarenak eta Kataluniakoarenak eta horren arabera joan eragiten".

"Mobilizazio herritar hau oraingo egoerara kanalizatu beharra"

"Puigdemonten astearteko adierazpenari egiten diogun kritika nagusia da, herritarren mobilizazioa maila oso altuan zegoela momentu horretan eta oso zaila dela berriz hori lortzea. Ezin da pentsatu maila hori mantendu ahal dugunik. Horregatik dagokigu orain aztertzea nola kanalizatu dugun mobilizazio herritar hau oraingo egoerara, bistatik galdu gabe borroka kalean dagoela, eta ea nola joaten garen indarrak batzen, zein momentutan... hori da dugun erronkarik zailena orain".

Eta logikoa den gisan, beldur handia zaio errepresioari, Espainiaren historiari ematen duelako horretarako betarik. Orain arte indarrean inoiz jarri ez den 155. artikulua oso zehazkabea da, nahi denerako aukera ematen dio indarrean jarri nahi duen gobernuari, baina inon ez da azaltzen zein errepresio maila erabili behar den milioi bat edo bi milioi pertsona kaletik ateratzeko. Edo zer egiten den Mossoen zati batek bakarrik Generalitatea obedituko duela esaten badu, edo nola desegiten den gobernu bat eta beste bat jarri herritarrek lehenaren aginduak betetzen badituzte eta bigarrenarena ez.

Errepublikaren defentsa

Espainiak "legearen inperioa" deitzen duen bere indarraren mehatxuan du konfiantza; Kataluniak independentismoaren batasunean eta herritarren indarrean. Zein gailenduko da? Espainiaren indarra edo Kataluniaren legimitatea?

Inork ez daki, baina batek pentsa dezake independentismoak lehenbailehen itxi behar dituela urriaren 10ean bere

baitan irekitako arrakalak. Erreferendumen iraultzaren espiritutik gertuago egonda samurrago defendatuko dutela independentzia; urrunduta, egoera korapilatu egingo zaiola Puigdemonti. Kapeluan untxiak izatea bikaina dela, baina errepresioa areagotzen denean, untxiez gain, bestelako tresnak ere beharko dituela lehendakariak. Batzuek Europar jartzen dute esperantza une honetan, besteek independentzia aldarrikapenean, besteak beste, honek defentsa tresnak ematen dizkielako.

Bi hilabete gehiago eskatu dizkio Puigdemontek Rajoyri, elkarrizketa edozeren gainetik lehenetsiz. Erantzun horrekin Espainiako Gobernuak erabakita bide du: 155. artikulua. Eta hala bada, bertan behera utzi ei zen independentzia aktiba dezake Puigdemontek. Eta katalanek berriz erabaki beharko dute nola segi Kataluniako Errepublika defendatzen. Batera zein bestera, oso kontuan izateko modukoak dira Nelson Mandelak esan eta hain ezagun bihurtu diren berba haiek: "Zure erabakiak izan daitezela zure esperantzen isla, eta ez zure beldurrena". ■



Guikuri
01138 Murua (Araba)
info@guikuri.com
www.guikuri.com

Telefonoak:
945 464 084
615 782 323 / 685 737 210

Adi bardularrak,
karistiarrak eta
autrigoiak: baskoien
hilabetekari berria
kalean da!



Info gehiago:
ELSALTODIARIO.COM

Alfontso Gartziandia [AHTren aurkako aktibista]



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

ARGAZKIA: EKINKLIK ARGAZKIAK / CC BY-SA

“AHT modu paregabea da diru publikoa esku pribatuetara abiada handian pasatzeko”

Alfontso Gartziandia naiz, 45 urte ditut eta Aratzurin bizi naiz. Urteak daramatzat AHT Abiadura Handiko Trenaren kontra borrokatzen. Proiektu hori zentzu askotan da kaltegarria eta, nire ustez, ez dago nondik eutsi. AHTren kontrako mugimendua hoztu egin da Nafarroan, eta berpizteko asmoz, berriki Tren Sozialaren aldeko eta AHTren kontrako Iruñerriko plataforma sortu dugu Oltza Zendea, Itza, Egillor eta Orkoiengo hainbat bizilagunek.



“Ez dugu tren galdu nahi” lelopean manifestazioa egin zuten urriaren 7an Tafallan, Erdialdea Trenaren Alde plataformak deituta, AHTren korridoreak herriak bakartzen dituela salatzeko.

Gure eskualdeak zeharo arbuaitzen du AHTren edo, egun ezaguna den bezala, PHT Prestazio Handiko Trenaren proiektua, eta gure plataformak kontraktasun hori bistaratu nahi du. Aipatu egitasmoa diru xahutze hutsa da. Eraikuntza lanetan inbertitutako dirua ez dago amortizatzerik, eta errentagarritasun sozialik ere ez du. Halako zerbitzuak ahalmen ekonomiko handiko pertsonen erabiltzen dituzte, eta hauei diru-laguntzak ematen ari gatzazkie, txartelak merkatuz, dirua halako azpiegituretara bideratuz... Ordea, geroz eta garestiagoa da hurbileko tren-zerbitzua. Eta hori da jende gehienak erabiltzen duena.

Gainera, gure kasuan, AHTk bitan zatituko luke eskualdea. Eta ez errepide batek banatuko lukeen moduan. Trenbide berria halako errezel fisiko bat litzateke, gurutza ezinezko hesi moduko bat. Erakundeek babesa izan nahiko genuke, baina, tamalez, Nafarroako Gobernuak bultzatu egin nahi du AHT. Diskrezioz bada ere, gobernura iritsi zenetik aritu da horretan Geroa Bai. Nafarroan ez da

inongo alternatibarik baloratu. Era berean, gobernuak ez du kontuan hartu herriarren hitza. Lehenengo, egitasmoa zehaztu eta diru kontuak itxi dira, eta gero eman zaizkio azalpenak gizarteari. Guretzako, ordea, badago alternatibarik Nafarroako korridorearentzat. Ni Sustrai Erakuntzako kide ere banaiz, eta bertan TPS Tren Publiko eta Sozialaren egitasmoa garatu dugu. 1987ko Tren Garraio Planean oinarritzen da. Honen arabera, Castejon eta Altsasu arteko zatia berritu eta indartu beharra dago, trenbidea bikoiztuz. Plan hau ez da inoiz burutu, ahaztu egin baitzen Madril-Sevilla AVEa egin zenean. Guk garbi dugu Nafarroako sarea jada zaharkiturik dagoela. Trenbidea bikoizteko aukera badago, eta, gure ustez, hor dago irtenbidea. Gainera, bide bakoitzari zabalera iberiarra eta nazioartekoa ezartzea proposatzen dugu.

TPSk nahi adina jende eta merkantzia garraiatzeko aukera emango luke. Pertsonentzako 160-180 kilometro orduko abiadura izango luke, eta merkantzieta-

rako 90 kilometro ordukoa. Horretarako, jada eraikia dagoen azpiegitura bat erabiliko genuke. Hau da, milaka milioi euro aurreztuko lirateke. TPSk hurbileko garraioa ere zaindiko luke. Funtzionatzeari utzi dioten hainbat geltoki berreskuratu nahi ditugu, tren bidezko garraioa bultzatu eta errepidekoari benetako kompetentzia egiteko.

Ingurumenari begira ere, egokiagoa da gure proposamena. AHTk ustez aurreztuko lukeen emisio kopuruak ez luke sekula berdinduko bere eraikuntzan igorritakoa. Aitzitik, gure plana askoz ere garbiagoa da. Oraingoz, harrera ona ari da izaten. Herritar askok zuen alternatiba baten beharra. Ordea, lan zaila izango da TPSren proposamena botere lekuetara eramatea. Ikuspegi politiko oso zehatza duten taldeak eta eraikuntzaren lobbyak dira AHTren bultzatzaileak. Eta, finean, horiek daude agintean. Proiektu horrek ez luke inongo azterketa kritikorik gaudituko. Baina AHT modu paregabea da diru publikoa esku pribatuetara abiada handian pasatzeko. ■

Kan Taniya, Abkhaziako atzerri ministro ordeak “Aldebakarreko independentzia aldarrikapena borroka berri baten hasiera baino ez da”

Kataluniako afera “arretaz” eta “interes handiz” jarraitzen ari dela aitortu digu Kan Taniya Abkhaziako atzerri ministro ordeak (Sukhumi, 1987). Abkhaziak aldebakarreko independentzia aldarrikatu zuen 1992an eta Georgiarekin izandako gerraren ostean, zazpi urteko blokeoa eta nazioarteko aitortzarik gabeko 16 urte luze bizi behar izan zuten. Ia 25 urte geroago, Kaukasoko herrialdearen independentzia prozesua ezagutu nahi izan dugu bere eskutik.



Ibai Trebiño
@ibaitrebino

25 urte pasatu dira Abkhaziako gerra hasi eta independentzia aldarrikatu zenutenetik.

Gerra irabazi ostean aldarrikatu zuen Abkhaziak bere independentzia. 1994ko azaroaren 26an Abkhaziako Errepublikaren konstituzioa onartu genuen, non Abkhazia estatu burujabe, laiko, independente, zuzenbidezko eta demokratiko gisa definitzen zen. Burujabe izateko eskubidearen aldeko borroka baten hasiera baino ez zen izan hori.

Zergatik hautatu zenuten aldebakarreko independentziaren bidea?

Aldebakarreko independentzia aldarria egin genuen beste biderik ez genuelako. Georgiarren konkista baino lehenago egin genuen hautua eta, gure erabakiaren ondorioz, Georgiak biolentziarekin erantzun zuen. Armada gure lurraldera bidaliz gerrari hasiera eman zion Georgiak.

Bi aldeek onartutako independentzia posible izan zitekeela uste zenuten orduan? Georgia beti egon da gure independentziaren kontra, eta hori ulertuta, aldeba-

karreko independentzia aldarrikatzea erabaki genuen, beti ere nazioarteko komunitateak gure independentzia aitortuko zuen itxaropenarekin.

Ez da gutxi izan bidean isuritako odola.

Gerrak beti dira negatiboak eta gurean ere sekulako mina eragin zuen. Hala ere, Abkhaziaren kasuan inork ez zigun gure estatusari buruzko iritzirik eskatu. Are gehiago, gure erabakiaren ondorioz georgiar armadaren erasoak sufritu genuen eta horren aurrean, gure lurraldea eta familiak defendatzeko hautua egin behar izan genuen.

Zazpi urteko blokeoari aurre egin behar izan zenioten. 16 urte eman dituzue inolako nazioarteko aitortzarik gabe. Nola egiten zaio aurre horrelako egoera bati?

Nazioarteko komunitatearen blokeo osoaren aurrean, bi aukera geneuzkan: Georgiaren parte izatera itzuli edo zigorpean eta garapen ekonomiko gabe bizi. Hori argitzeko erreferenduma antolatu genuen 1999an eta bozketan abkhaziarren %98ak estatu indepen-

dente baten alde egin zuen. Esan genezake nazioarteko blokeo ekonomikoak estatu independente bat izateko nahia hauspotu zuela.

2008an Errusia eta beste herrialde batzuen (Venezuela edota Nikaragua) aitortza heldu zen. Zer aldatu zuen horrek?

Garrantzi handiko gertakari historikoa izan zen hura, ez soilik gure herriarentzat, baita nazioarteko harremanetako sisteman aldaketa handia ekarri zuelako ere. Gure kasuan, aitortuak ez izatetik aitortuak izatera pasa ginen, hau da, nazioarteko zuzenbidearen parte izatera pasa ginen. NBeko herrialdeen aitortza falta zaigun arren, orain nazioarteko komunitatearen aitortza denbora kontua izango dela esan genezake. Lehenago edo geroago, nazioarteko herrialdeen aitortpena iritsiko da.

Egun, ‘gerra teknikoan’ jarraitzen duzue. Zergatik ezin da gatazka politikoki konpondu?

Errusiak eta beste bost estatuk gure independentzia aitortu zutenean gatazka

bere parametro batean sartu zen. Jada ez dago gerrarik, ezta hildakorik ere ez. Halere, Abkhazia beste lurraldearen parte gisa aldarrikatzen jarraitzen du Georgiak eta hor dago arazoa. Georgia-ko agintariak ez dute ulertzen ezinezkoa dutela gure lurraldea herriaren boron-daterik gabe gobernatu eta horregatik indarra erabiltzeko prest izango dira beti. Gure aldetik, ordea, armagabetze bat sinatzeko prest izango gara beti, baita Georgiarekin harreman diplomatikoak eraikitzeko ere, estatu subirano eta independente gisa beti ere.

Georgiak behin baino gehiagotan esan du ez duela Abkhaziaren independentzia sekula onartuko.

Abkhaziako errealtate politiko berria ukatzen jarraitzen dute. Guretzat baina, Georgiaren aitortza ez da hil ala bizikoa. Garai gogorretan ere haien aitortzarik gabe biziraun genuen eta orain gainera, gure estatuari esker lehen baino indartsuagoak gara. Gure etorkizunaren inguruan gauza bat argi dugu: estatu subirano eta independentea gara eta horrela izaten jarraituko dugu.

Kataluniari dagokionez, nola ikusten duzue egoera?

Arreta eta interes handiz jarraitzen ari gara eta gure ustez, Europar Batasunak Kataluniako herriaren iritzia kontuan hartu beharko luke. Eskozia eta Brexit-aren ondoren, Kataluniaren auzia datorkie orain. Ziur nago herri katalanaren borrokak indar handia transmitituko diela historikoki burujabe izan nahi duten Europako beste herri batzuei. Bestalde, inportanteena da biolentziarik gabe ekitea eta, ahal den heinean, elkarrizketa ahalbidetzea.

Ontzat hartu dituzue Kataluniako erreferendumaren emaitzak?

Bai, noski.

Espainiak ilegaltzat jo du bozketa eta oro har independentzia prozesua. Horrelako kasuetan, legea ala herriaren borondatea lehenetsi beharko litzateke?

Nazioarteko zuzenbidearen arabera, herriaren borondatea errespetatu behar da, estatu burujabearen lurraldetasun printzipioak errespetatuz, beti ere. Hau horrela, norberak irakurketa propioa egiten du horren inguruan. Guretzat baina, herriaren borondatea sakratua da.



"Nazioarteko blokeo ekonomikoak estatu independente bat izateko nahia hauspotu zuen".

ARGAZKIA: ABKHAZIAKO ATZERRI MINISTERIOAK UTZIA

Polizia eta Justiziaren bideak hautatu ditu Espainiako Gobernuak. Konponbide politikoa posible dela uste duzu?

Espainiak Kataluniako herriaren aurka biolentzia erabili duen heinean, zaila izango da gatazkaren abiapuntura itzultzea eta ondorioz, negoziazio prozesu bat zerotik martxan jartzea. Nik ez diot inori gerra opa eta horregatik, gatazkak konponbide politikoa behar duela uste dut. Bitartekaria behar da konpromisoak adostu ahal izateko.

Nazioarteko legediaren arabera, Kataluniak ez du eskubiderik aldebakarreko independentzia aldarrikatzeko. Bai ordea Kosovok.

Abkhaziaren kasuan ere aplikatu daitekeen araua da hori. Nazioarteko politikak estandar bikoitza du oinarri, eta horrek, tamalez, interes geopolitikoei erantzuten die, ez nazioarteko zuzenbideko arauari.

Independentzia aldarriak zer ekar liezaioke Kataluniari?

Independentzia aldarria borroka berri

baten hasiera baino ez da. Independentzia aldarrikatzen denean nazioarteko aitortzen beharra daukazu; akordioak sinatu edota harreman diplomatikoak eraikitzeko, esaterako. Ez da gauza erraza, baina burujabe izan eta etorkizuna erabakitzeak hautua egiten duen herri orok beti sakrifikatu beharko du zerbait.

Eta Europari ordea, zer arazo ekarri liezaioke Kataluniaren aldarriak?

Fenomeno berria denez European, Kataluniari zailtasunak ekarriko dizkio- la uste dut. Horren aurrean, Europak bideak aurkitu behar ditu errealtate berrira egokitzeak eta berau onartzeko, beti ere giza eskubideak oinarri hartuta. Aldi berean, espero dut Kataluniaren aferak abkhaziarro asko lagunduko digula.

Kataluniaren balizko independentzia onartuko luke Abkhaziak?

Kataluniako autoritateek hala eskatuko balute, gu prest egongo ginateke Kataluniaren independentziaren alde egiteko. ■



ISABELLE MIQUELESTORENA / MEDIABASK

Linky argindar kontagailu inteligenteak Osagarria eta bizi pribatuaren errespetua zalantzan



Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Linky kontagailuen instalazioa ez du uste bezain erraza Enedis enpresak. Kontagailu honen giblean gordetzen dena ezaguturik, geroz eta gehiagok duelako errefusatzeko dituen Troiako Zaldia da Linky”, dio kezkaturik José Lavictoire CADE elkarte ekologistako kideak.

Izan partikularren zein udalen partetik, Linky deitu argindar kontagailuaren aurkako jarrerak biderkatuz doaz Ipar Euskal Herrian. Bi kezka nagusi daude errefusaren oinarrian: batetik, dakarren bizi pribatuari buruzko informazio bilketa; bestetik, hedaturiko uhin elektromagnetikoen kaltegarritasuna.

Azalpen ofizialari fidatuz gero, “inteligente” kalifikatzailea gehitzen zaion kontagailu honek sinpletasuna ekarriko dio herritarri, une oro zehatz-mehatz jakinen duelako zein heinetako argindar kontsumoa duen. Hori erranik, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako etxe guztietako elektrizitate kontagailuak ordezkatzeko dabil Enedis enpresa. Ta-

rrapataka, 2021. urterako, Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatu osoan, guztira 35 milioi Linky kontagailu inteligente instalatzeko kontratua lortu zuelako iaz.

Hauturik ez dela azaltzeko orduan, 2009ko uztailaren 13an Europako Parlamentuak bozkatu zuzentarau batean oinarritzen dira Enedis enpresaren or-

dezkariak. Elektrizitate horniduraren merkatuan parte hartzera behartzen ditu kontsumitzaileak lege horrek. Baina xehetasun bat isilean atxikitzen dute: gaur egungo kontagailuekin berdin-berdin bete dezaketela bete-behar hori.

Sinpletasuna baino gehiago da, ordea, Linky. “Jendeak ez daki, Enedisek ez duelako informatzen. Baina jakinez gero, aurka kokatzen da herritarra”, Lavictoiren hitzetan. Etxe jabe gisa errefusa adierazteko gutuna bidaliz Enedisi edota herriko kontseiluak Linkyren aurkako udal erabaki bat bozkatzuz, trabak kausitzen dituzte teknikariek bidean.

Big Data osatuz

Bizi pribatuaren errespetu eza da kontra direnen arrazoietakoa bat. Hain zuzen, etenik gabe, norbanako bakoitzaren kontsumoari buruzko milioika datu batzen ditu Linky kontagailuak. Hots, Big Data datu base masiboa elikatze-ko balioko dute 35 milioi kontagailuek. Funtsean, Lavictoirek ohartarazten duenez, hori da Linkyren bete-behar nagusia: “Momentu oro jakinen dute zenbat elektrizitate eta zertarako kontsumitzen dugun”.

Elektrizitate eskaintzak zerbitzu publikoarekin errimatzen zuen garaia iraganean galdurik da. Linky azaltzeko orduan, zehaztasun horrek garrantzi handia duela dio CADEko kideak. Hain zuzen, 2007an ireki zitzaion elektrizitatearen merkaturak konkurrentziari, eta Frantziako EDF egitura publikoak argindar banaketa gestionatzeko ERDF sozietate anonimoa sortu zuen. Iaztik izenez aldaturik, gaur egun Enedis izena du enpresa horrek. Mundu mailako merkatu librean lehiakor izateko kontsumoari buruzko informazio ahal bezain zehatza ezinbestekoa dute enpresek.

“Datu horiek biziki interesgarriak dira industriarentzat, erosi nahiko dituzte eta salduko dizkiete, gure bizi pribatuaren errespetua zangopilatuz”, dio Maite Etxeberrira Ozazeko auzapezak. Linky kontagailuen instalazioaren aurka udal-erabaki bat bozkatu dutenen artean dago



2021erako Frantziako Estatu osoan 35 milioi Linky kontagailu ezartzeko kontratua du Enedis enpresak.

ARGAZKIA: ERDF

» **JOSÉ LAVICTOIRE, CADE:**
“Linkyren bidez une oro jakinen dute zenbat elektrizitate eta zertarako kontsumitzen dugun; datu horiek biziki interesgarriak dira industriarentzat”

Zuberoko herrixka hori. Ironiaz dio: “Inteligente deitzen duten kontagailu hori jakintsua izanen da gure datu pertsonal guztiez jakinean izanen delako...”.

Gainera, kontsumoa ahula den uneetan elektrizitatea gutxitu ala mozten ahalko dute, errekupeatu elektrizitate kantitatea merkaturak saldu ahal izateko.

Uhinek sortu kezka

Kontagailu hauek uhin elektromagnetiko bidez igortzen dituzte ordenagailu zentral batera etxe bateko kontsumo xehetasunak. Uhin horien kaltegarritasuna da Linky errefusatzeko beste arrazoietakoa bat. Hain zuzen, orain arte inork ez duelako frogatu uhin horiek osasunerako kaltegarriak ez direnik. Alderantziz, Munduko Osasun Erakundeak “minbizi sortzaile” izan daitezkeen osagaien artean sailkatuak ditu.

Dudak argitzeko, ikerketa independente bat exijitzen dabil Criirem, Fran-

tzia mailako erradiazio elektromagnetikoei buruzko ikerketa zentroa. Eskaera berdina luzaturik dute aurkako jarrera hartzen duten udalek.

Errefusaren gainetik ari da Enedis

Egoiliarren partetik errefusa edo zalantza kausituz gero, bide gogorak erabili ohi dituzte teknikariek: larderia, beldurra, mehatxuak zein presioa. Etxean ez zeudela, baimenik

eman gabe, kontagailua aldatu atzetan dutenak ere ez dira gutxi. Funtsean, hamarnaka dira Enedis aurkako salaketa jarri dutenak. Behartze hori onartezina dela argudiatuz, Linkyren instalazioari buruzko moratoria bozkatu zuen Baionako Kontseiluak iragan uztailaren 19an. Kontagailu berria ez instalatzeko eskubidearen errespetua eskatzen dio Enedisi Jean-René Etxegarai auzapezak.

Baiona ez da aurka kokatu den herri bakarra. Horien artean dira, besteak beste, irailaren 15ean Pauko Administrazio Auzitegira deituak ziren Ozaze, Hauze eta Iruri. Kontagailuen jabegoa herrien esku ez dela erranik, udalen errefusak baliogabetu ditu epaileak. “Zein da kontagailuen jabe? Hori izan da galdera. Baina jabe ez izan arren, zerbait gertatuz gero herriko etxea izango da erantzule. Gu horrek gaitu kezkatzen”, dio Maite Etxeberriri. Linky ondorioztatzen dituen aldaketak ezaguturik, egitura publikoek arduraz aritzeko bete-beharra dutela dio Ozazeko auzapezak.

Pirinio Atlantikoetako Energiaren Sindikatua da kontagailuen jabe. Linkyren aurka agertu ez bada ere, egoiliarrek adierazi errefusa errespetatzea eskaturik dio sindikatuak Enedis enpresari.

Ipar Euskal Herri Elkargoko ordezkariengana joko dute ondoko asteetan Linkyren aurkakoek. Lavictoirek dioenez, zerrendaturiko kezkaz gain, zerbitzu publikoaren geroa delako mahai gainean. “Zerbitzu publikoa dago jokoan. Elektrizitatearentzat Linky dagoen gisara, Aquarius dago urarentzat eta Gazpar gasarentzat. Aldaketa horiek dakartenez jakinean izan behar du Herri Elkar-goak”. ■

Kaxubiarrak

Ikastolak izan ditu eredu lehen kaxubiera eskolak

Badakigu non den Polonia, baina ez zer den kaxubiera. Hala ere, Euskal Herriarekin izandako hiru urteko harremanaren ondorio da eskola, eta horrexen berri eman digu Garabide Elkarteko lankide Maialen Sobrinok (Elizondo, 1988). Bost urte egina da Polonian, lau Varsovia, bat Poznan-en.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: GARABIDEK UTZIAK

Euskal Herrira etorri ziren kaxubiarrak.

2015eko Aste Saindu inguruan hurbildu ziren lehendabiziko aldiz. Baztan ikastolarat etorri zen seikote bat, tartean bi guraso bere semearekin. Korrika urtea zen eta Bilbon egon ziren bukaera bestan; harrituak gelditu ziren. Lehenbiziko kontaktu horretatik bueltatu orduko Korrika etxekotu zuten eta aurten bigarren aldiz egin dute. Kaxubiarren dimentsioa du, ez hemengoa, baina ekimenaren funtsa etxekotu dute. Urte berean, Nafarroa Oinez baino lehen etorri ziren bigarren aldiz eta ikastolaren funtzionamendua ezagutu ahal izan zuten. Hor gauza interesgarri bat gertatu zen. Gurasoak bileran ziren bitartean, haurra ikasgelara sartu zuten. Han egon zen bertze haur guziekin, eta gero, etxerako bidean Kaxubiako haurrak bota zuen: "Aita, eta guk zertaz ez dugu horrelako eskolarik?". Galdera sinplea, baina erantzuna zaila.

Eskola ireki dutela esan duzu.

Irailaren 4an. Ez da deusetik sortua. Hezkuntza proiektua lantzen hasi ziren lehenbizi. Kaxubieraz irakatsi nahi zuten, baina baliabideak zein zituzten ere aztertu beharra zuten. Hizkuntzarekin batera, hezkuntza eredu alternatibo eta propioa osatu nahi zuten. Oraintxe Polo-

nian hezkuntza erreforma handi bat egin ari dira, eta jende anitz ez dago bate-re ados hartu diren neurriekin. Hortaz, guraso anitz abiatu dira eskola eredu berri bila, publikotik aterata. "Hauxe da gure aukera!", pentsatu zuten kaxubiarrek, "pentsa dezagun zer dugun eta zer nahi dugun". Kanadako eredu, Europa iparraldeko herrialdeetakoak, ikastolak... pixka bat eskura zituztenak aztertu zituzten.

Zein eredu landu dute?

Hiru ardatz ditu. Batetik, hizkuntza; lehenengo aldiz irakasten da kaxubieraz eta bertze hizkuntzekiko jarrera ere inklusiboa da. Bertzetik, IKTen erabileraren alde egin dute, paperik ez baina *chromebook*-ak erabiltzen dituzte; sarean lan egin ahal izateko, bertzeak bertze. Azkenik, gaitasun komunikatiboen lanketa berezia egiten dute; adibidez, irratitudio bat dute eskolan, haurrek irratigintza landu eta ikasi dutena aplikatu dezaten. Kaszebsko Jednota -Kaxubiarren Batasuna, alegia- izeneko elkarteko zenbait eragilek abiatu zuten proiektua eta eskola eredu berria elkarrekideei aurkeztu zitelarik uste baino harrera hobea jaso zuten, baita gizarte-za zabaldu zutelarik ere.



Aurrera egin zuten, hortaz.

Bai. Ikasgaiak zehaztu zituzten, irakasleak aurkitu eta bertze hamaika lan, tartean altzari denda bat zaharberritu eskola bihurtzeko. Non jarri ere erabaki zuten, garrantzizkoa baita hori. Administrazio hiriburua da Gdansk -Gdansk, kaxubieraz-, hiri handi bat, non kaxubieraren erabilera ez den arras handia. Hortaz, eskola Wejherowo-n irekitzea erabaki zuten, erraten baitute herri horretan dela kaxubiarren arima, erabilera ere hortxe bizienik, eta geografikoki ere Kaxubia erdian.

Kaxubierak zenbateko presentzia izango du?

Poloniera, hizkuntza gisa, astean borts orduz ematea eskatzen die legeak. Beraiak, orduan, kaxubiera bertze borts orduz ematea erabaki dute, bi hizkuntzak parekatzeko asmotan. Eredu publikoan, kaxubiera hautazkoa da eta astean hiru orduz ematen dute. Hortaz, bada aldea. Gainerako gaiei dagokienez, aurten informatika, ingurumena, musika eta plastika emanen dira kaxubieraz, ikasgaien %50. Irakasleei dagokienez, %80 kaxubiera hitzuna da, eta gainerakoek kaxubieraz ikasteko konpromisoa hartua dute, eta horretarako programa ere abiarazia dute.



Zenbat dira kaxubiera hiztunak?

108.000 kaxubiera hiztun daude. Aldiz, kaxubiar gisa beren burua identifikatzen dutenak 250.000 dira. Eskualde berean daude denak, Pomeranian. Erbesteratuen komunitate bat badute Kanadan, bigarren edo hirugarren belaunaldikoa, eta kaxubiera eskolak ere ematen dituzte han. Bertzalde, kontuan hartzea merezi duen afera bat: kaxubiera hizkuntza eslaviarra da, polonieratik ez urrun, katalana gaztelaniatik bezain urrun, errateko. Hori dute alde eta kontra. Kontra, orain artean dialektotzat jo izan dutelako. Alde, ikasteko garaian erraztasuna dakarrelako.

Zein da eskola abiarazi duten kaxubiarren helburua?

Eskolaren bidez hizkuntza komunitatea indartzea. Eskolara hurbildu dira



Beren burua kaxubiartzat dutenak 250.000 dira. Kaxubiera hiztunak 108.000 dira. Lehen kaxubiera-eskolak 5 eta 12 urte arteko haurrak hasi dira.

kaxubiera hiztunak ez ziren familiak – guraso, haur eta irakasle –, eta horien bidez komunitatea sendotzea da beraien nahia. Han izan ginelarik, irailaren hasieran, hogeitakasle ziren. Bada, 30 ziren hilaren hondarrean, Polonian iraila osoan irekia baitago matrikulazioa. Lehen Hezkuntzako eskaintza dute, 5 urtetik 12 urte artio, hiru gelatan banatuak, zikloka, gure herrietako anitz eskolatan den gisan. Nabarmentzekoa da egin duten lanari esker lortu dutela 2018ko urtarriletik aitzin eskola sare publikoan sartzea.

Zenbaterainoko presentzia du kaxubierak Polonian?

Varsovian edo Poznanen bizi nintzelarik, minoriei buruz galdetzen nuelarik, gehienek Polonia herrialde homogenea dela erraten zuten, denak zuriak, denak katolikoak... estereotipoak! Akaso, sile-siarrei buruz solastatzen ziren. Inork ez zizkidan kaxubiarrak aipatzen. Nik erraten nuelarik, orduan, “Eta kaxubiarrak?”, beraiek “Zaharrak dira... Dialekto bat da... Galtzen ari da...” gisako erantzunak jasotzen nituen. Aldiz, hizkuntza gisa onartua den bakarra Polonian, kaxubiera duzu, 2005ean lortu zuten aitorpena. Horri esker, udalek diru-laguntzak dituzte eskoletan kaxubiera irakasteko, bide-seinaleak bi hizkuntzetan jartzeko eta bertze. Ez da gure ofizialtasunaren gisakoa, baina urrats bat da.

Erabileraren gainean zer datu dira?

Wejherowo-n %25ekoa da erabilera. Periferian, %10. Hala ere, zail da neur-tzen, hiztun pasibo anitz baitago, ulertzen bai baina solastatzen ez dutenak. Familia anitzetan pasatzen da zaharrek kaxubiera solastatzen badakitela, baina ez bertzeek. Eta eskolan hiru orduko eskolak emanez... Bi belaunalditan galtzen ahal da hizkuntza.

Galtzeko perilean da kaxubiera?

Euskara galtzeko arriskuan dago? Ez... edo Nafarroako toki batzuetan segurik bai, adibidez. Perspektiba zein den. Uste dut hondar hamarkadan Kaxubiarren Batasuna elkartearen eta Radio Kaszebe irratiaren egin duten lanak –150.000 entzule ditu, polonieraz eta kaxubieraz egiten du–, kontzientzia hauspotu duela. Adibidez, maketa-lehiaketa idurikoa egiten dute urtero eta kaxubierazko lanen liburutegi ibiltaria dute, bertzeak bertze. Arriskuak ere badira, hala ere...

Zer esan nahi duzu?

Anitzendako kaxubiar izateak ez du ikustekorik hizkuntzarekin. Errateko, Poloniako lehen ministro ohi Donald Tusk kaxubiarra da, eta kaxubiar elkar-te handieneko kide, baina hizkuntzaren aldeko ekimenetan ez dute interesik, folklorea soilik. Hor da talka. Dena den, oztopoen bertze aldean beti daude aukerak. ■

BABESLEA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
www.bizkaia.eus

Makinez inguratutako errealitateaz euskarazko jardunaldietan

lamezkak, ARGIAk eta Ametzagaña taldeak antolatutako Euskarabildua jardunaldietan teknologia aurreratuek etorkizun hurbilean komunikazioaren eta marketinaren esparruan izango duten eraginaz hausnartzeko aukera izango da. Helburu nagusia, euskal gizarteak eta euskarak teknologia hauek nola erabili behar dituen gogoetatzea izango da. Urriaren 26an Donostiako Kursaallean, honako teknologiei egingo zaie erreferentzia: adimen artifiziala, *machine learning*, errealitate areagotua, errealitate birtuala eta Big Data.



Xalba Ramirez
@xalbaram

2016ko uztailaren 16ko iluntzean, milaka pertsonak New Yorkeko Central Park inbaditu zuten arrapaladan. Korrika eta presaka iristen ziren herritarrak, hainbatek kotxea abandonatuta uzten zuten –giltzak jarrita ere bai–, kantoiaren batean. Arrazoia ulertzea zaila da bideo-jokoen mundutik urrun dabile-narentzat, baina Vaporeon delako Pokemon arraro bat agertu zen parkean eta milaka erabiltzaile edozer egiteko prest agertu ziren hura harrapatzeko.

Fantasia dirudiena, teknologia aurreratuen lagin bat baino ez da. 2016ko udan *Pokemon Go* errealitate areagotudun jokoa egun gutxiren buruan, mundu osoan zabalduta zen. Milaka erabiltzailek euren mugikorrekin edozein bazterretan bilatzen zituzten Pokemonak. Hila-bete batean 130 milioi deskarga baino

gehiago izan zituen eta 206,5 milioi dolar fakturatu, marka oro hautsiz; jada 700 milioi deskargatik gora doa.

Errealitate areagotuaren bitartez garatutako teknologiaren adibide bat da *Pokemon Go*. Munduan horrenbeste hedatu den gisa honetako lehen proiektua izan arren, aurrekari hauek izan ditu; 1995ean lehena, *Nintendo Virtual Boy* bideo-jokoa. Tiratzaile baten azalean jartzeko asmoa izan zuen jokoa, baina porrot izugarria izan zen, eta Europa-ra ez zen iritsi ere egin. Horrelakoetan ohikoa den eran hasierako espektatibak zapuztuta, enpresek ikertzeari utzi zioten, eta industria militarra hasi zen frogak egiten.

2016an Microsoftek HoloLens errealitate misto zein areagotuak sortzeko betaurrekoak merkaturatu zituen. Goo-



glek ere, 2012an arrakasta lortu ez zuen Googleglass-en modelo berria merkaturatuko du aurten. Smartglass delako hauen bitartez, errealitateko irudiak irudi digitalekin nahastuko dira, elkarrekin jartzeko aukerarekin.

Bideo-jokoetatik harago

Zientzia fikzioko pelikuletan imajinatu izan den bezala, errealitate areagotu eta mistoak dibertsiorako baino askoz gehiago balio dezake. Jada hainbat lan-tegietan erabiltzen dute, makinekin lan egiten duten langileek prozesua uneoro kontrolatzeko aukera izan dezaten.



4.0 industria deitzen hasi zaio teknologiaren aplikazio honi. Izar cutting tools euskal enpresako langileek jada erabiltzen dituzte smartglassak makinaren aberiak aurreikusteko eta une bakoitza monitorizatzeko.

Arkitektura bulegoetan ere erabiltzen hasiak dira errealtate areagotuko aplikazioak maketak diseinatu eta eraldatzeko edo bezeroei emaitza errazago ikustarazteko. IKEA Suediako multinazionalak ere antzeko aplikazio bat dauka eskuragarri, imajinazio eskasa duenak logela nola dekoratu aukeratu ahal izateko. Irakaskuntzan, museotan, kiroltako

entrenamenduetan eta beste hamaika eremutan ari dira garatzen laster denon eskuragarri egongo diren aplikazioak.

Tobias Kammann ikerlari alemanaren arabera, oraindik oso urrun gaude izan daitekeenetik, baina jada hartu duen martxa ikusita olatua geldiezin izango dela aurreikus daiteke. Errealtate areagotuaz gain, errealtate birtualaz eta mistoak ematen dituen aukerez arituko da Kursaaaleko jardunaldietan.

Publizitate Programatikoa

Lorea Arakistain PuntuEUS Fundazioko komunikazio arduradunaren arabera

publizitate programatikoak interneten publizitatea erosteko modua aldatu du: "Interneteko atarietako espazioak erosi beharrean erabiltzaileak erosi daitezke, nabigatzen duten lekuan nabigatzen dutela ere". Horregatik inoiz zapatila, bidai edo instrumentu batzuk bilatu izanagatik, ateratzen zaigu edozein webguretan iragarki hori. Publizitate Programatikokoaren bidez mezua helarazteko aukerez arituko da jardunaldietan.

Publizitate Programatikoa egindako mundu osoko iragarkiek jada gainditu egin dute konbentzionalak zituen espazioak, bereziki AEBetan. Espainiako Estatuan 50 milioi euroko inbertsioa izan zuen iaz eta etengabe haziz doa.

Big Data-k eskaintzen duen informazioari esker funtzionatzen du publizitate eredu honek. Ohiko aplikazio informatikoak ez dira nahikoak eskala handiko datuen prozesamendurako eta algoritmoen bidez patroir errepikakorak ateratzea izaten da Data analisien helburua.

Anaitz Goia segurarrak sortutako EraSight enpresak datu hauen kudeaketa du helburu. Ez soilik publizitate programatikorako, enpresen estrategia komertzialak definitzen laguntzeko ere erabilgarria baita Big Dataren kudeaketa. Bezero motak eta euren joerak aztertzea da oraingoz euren lana, "enpresek erabakiak datuen arabera hartzeko, eta ez intuizioen arabera".

Urriaren 26an Kursaalean

Aipatu teknologiak komunikazioan eta marketin gaitan zentratuko dira Euskarabildua jardunaldietan. Teknologiarene gainean euskaraz egiten den mota honetako ekimen bakarra dugu, urtero nazioarteko ordezkaritza esanguratsua ekartzen duena. Hemen aipatutakoez gain, Mikel Lekaroz (Zodiak Advertising-eko Espainiako zuzendari nagusia), Christina Stathopoulos (Nilsen, Google), Javier Etxebeste (Nestora, Daybat) eta Arantza del Pozo (Vicomtech) izango dira urriaren 26an.

Black Mirror bezalako zientzia fikzioetan erabiltzen den teknologia geroz eta gertuago dugu guregandik, albo batera begiratu dezakegu, edo aurre hartu. Gure esku dago, distopia gisa irudikatu izan dena euskararen eta euskal gizartearen garapenerako erabiltzea. Eta horretarako aukera ederra da Euskarabildua. ■

Esako urtegiaren handitzea

GUTXIETSITAKO ARRISKUA

2001ean Jaime Matas Espainiako Ingurumen ministroak Esako presa berriaren lehenengo harria jarri zuenetik, epeek eta aurrekontuek gora egin dute modu geldiezinean, baita presa sostengatzen duen magalaren mugimenduek ere. Herritarren artean ezjakintasuna da nagusi, eta Ebroko Ur Konfederazioaren erantzuna isiltasuna da. Handitzearen benetako eraginak jakin bitartean obrak geldi ditzatela eskatzen du gizarteak, eta eskaera horri batu zaio Nafarroako Gobernuak.



Ane Eslava Serrano

@eslavaane

ARGAZKIA: JOSU SANTESTEBAN

Esako urtegia frankismo garaian inauguratu zuten, 1959an, laborantza lurretako 2.400 hektarea urperatuta eta Tiermas, Ruesta eta Escó herrietako despopulazioa bultzatuta. Segurtasun arazoak izan ditu hasieratik, presa sostengatzen duen magala geologikoki oso ezegonkorra delako. Adituek urteak daramatzate arrisku horiez ohartarazten. Hala eta guztiz ere, 1985ean urtegia handitzeko proiektua onartu zuten.

Hasierako egitasmoak urtegiaren edukiera hirukoiztea aurreikusten zuen, baina borroka sozial eta judizial handi baten ondorioz, proiektua aldatzea lortu dute: urtegiaren bolumena bikoiztu egingo dute, 490 hektometro kubotik 1.079ra pasata. Lanak 2009rako amaituta egongo zirela esan zuten hasieran, baina epea atzera-


tzen joan dira, 2020an finkatu arte. Hasieran 113 milioi euroan esleitu zituzten obrak, eta 433 milioira igo dute zifra; aurrekontua laukoiztu egin dute, alegia. Kopuru horri “obra osagarrietara” zuzendutako 277 milioi euro gehitu behar zaizkio.

Ondorioei dagokienez, presa handitzeak kalteak eragingo ditu Natura 2000 sare ekologikoa osatzen duten Kontserbazio Bereziko Eremuetan eta Batasunaren Garrantzizko Lekuetan, eta mendi-hegalak irristatzeko probabilitatea handituko du. Horrez gain, urak Artieda, Mianos eta Sigües herrietako lurrik emankorrenak hartuko ditu, eta biztanle askori lurrak eta etxeak desjabetuko dizkiete. Ibarraren ondarean ere eragingo du, Santiago Bidearen 22 kilometro desagerraraziko dituelako.

Mugimenduen eta arriskuen inguruko txosten ofizialik ez

Antonio Casas Zaragozako Unibertsitateko geologoa da Esaren inguruan gehien ikertu duten adituetakoa bat. 1990ean hasi zen urtegiaren arriskuei buruz ohartarazten, eta gerora, haren txostenetako aurreikuspenen zuzentasuna frogatu da. Otsailean, Nafarroako Legebiltzarrean, jakinarazi zuen eskuineko magalaren egoera “jasanezina” dela, hilero milimetro batzuk higitzen ari dela eta mugimendua hasieran aurreikusten ez ziren inguruetara zabaldu dela. Aurrera begira egoera “jasanezina” izango dela adierazi zuen Casasek.

Espainiako Gobernuak eta Ebroko Ur Konfederazioak (CHE), baina, ez dituzte onartzen Casas eta gainontzeko adi-





tuen ikerketak, eta Konfederazioak ez du informaziorik ematen. Horregatik, herritarren kolektiboek urteak daramatxate Nafarroako Gobernuari exijitzen bere eskumenak erabil ditzala, nazioarte mailako ebaluazio-txosten independenteak eskatzeko, existitzen diren arriskuak baloratzeko. Eta hainbat ezezkoren ostean, azkenean, baiezkoa jaso dute: irailaren 6an, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen nazioarteko adituen irizpena enkargatuko dutela eta txostenaren kostuak 2018ko aurrekontuetan zehaztuko dituztela.

Era berean, Madrilgo Gobernuari eskatu diote obrak gelditu ditzala txostena burutu arte. Asmoa berretsi baino ez dute egin Gobernuako teknikariek egin duten eta urriaren 9an ezagutarazi zen

ikerketaren emaitzek: segurtasuna ez dago bermatuta Esako urtegia handitze-lanetan, eta Ebroko Ur Konfederazioa arriskua "gutxien" ari da.

Handitze lanaren helburu ofizialak, zalantzan

José Luis Beaumont Esako urtegiaren auzietan ibili den abokatua da. Gertutik ezagutzen du CHE eta "opakotasunaren sinbolo" moduan definitu du: "Arazoak daudenean ezkututzen edota gutxies-ten dituzte, Esa ez da inongo salbuespena. Espainiako Estatuan obra hidrauliko handien proiektuak onartzen dira aurretiazko ikerketa geologikoak egin gabe, eta ondoren arazoak daudenean nahi bezainbeste diru publiko desbideratzen dute".

» Magala milimetro batzuk ari da mugitzen hilero eta haren egoera "jasanezina" izango da, Antonio Casas geologoak otsailean Nafarroako Legebiltzarrean azaldu zuenez

Beaumonten ustetan, helburu ezkutu bat dago urtegia handitzearen atzean: bertsio ofizialaren arabera, eraikitzen ari diren hormigoi puska berria jatorrizko presan sostengatuko da; hark, ordea, alderantziz izango dela uste du, jatorrizkoa segurtatzeko eraikiko dute-

» Esako handitze lanetan segurtasuna bermatuta ez dagoela eta Ebroko Ur Konfederazioa arriskua “gutxien ari dela” ondorioztatu dute Nafarroako Gobernuako teknikariak

» **IKER ARAMENDIA, ESA+EZ:** “Euria barra-barra egiten duenean, gauean, zure mamuetan pentsatzen hasten zara eta ezin duzu hori baztertu”

la berria, alegia. “CHEk ez du hori inoiz esan, onartu beharko lukeelako egungo urtegia ez dela segurua eta hustu egin behar dela konponbide bat aurkitu arte”, azaldu du.

“Handitzearen lehenengo proiektuan presak 1.225 hektometro kuboko dimentsioa izatea aurreikusten zen, eta hala eraiki izan balute, ezinezkoa izango litzateke urtegia betetzea, presa urte oso batez itxita ere –hori ezinezkoa da, gutxienez ibaiaren emari ekologikoa utzi behar delako–, Aragoi ibaiaren ekarpena txikiagoa da eta”, argudiatu du abokatuak. Haren ustez, neurri horietako presa bat eraikitzearen helburu bakarra presa zaharra sostengatzea izan daiteke.



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailtarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

“GAUR EGUNGO LEGEDIAREKIN EZ LUKETE ESAKO PROIEKTUA ONARTUKO”

José Luis Beaumont Itoizko urtegiko uretan behera dagoen Artiedan (Nafarroa) bizi da, eta urtegi askoren aurka lan egin du abokatutzan hasi zenetik, arreba María Josérekin batera. Egun, ziurtatzen du ibai baten ondoan bizitzea “sekulako zortea” dela, baina manipulatu gero “bonba bat” izan daitekeela.

Gehien borrokatu dituen auzien artean dago uztailan Espainiako Auzitegi Nazionalak bertan behera utzi zuen Biscarrueseko urtegia (Huesca). Lehen aldiz historian, Espainiako Estatuak halako proiektu bat baliogabetu du ibaiaren uraren kalitatea hondatuko lukeelako. Hain zuzen ere, Biscarrueseko proiektuak ez zituen betetzen Europako Uraren Es-

parru Zuzentarauak (UEZ) zehazten dituen baldintzak eta Europako Batzordeak arau-hauste prozedura bat abiarazi zuen Espainiako Estatuaren aurka. Horren ondorioz, eta herritarren borroka nekazariari esker, azkenean, proiektua baliogabetu dute.

Eta zergatik jaso du estatuaren oniritzia Esako urtegi handiak? Beaumontek azaldu du: “Proiektua onartu zutenean ez zen existitzen UEZ, 2002an sartu zuten indarrean Espainiako Estatuan, eta Esari lotutako azkeneko auziak lehenagokoak dira. Garai hartan UEZ indarrean egon izan balitz, ordea, Biscarrues atzera bota duten arrazoi berdinarengatik deuseztatuko zizuketen Esa, Itoiz eta beste asko”.

Antzekotasunak Vajont-eko urtegiarekin

Esan gertatzen ari diren mugimenduek parekotasunak dituzte adituek Vajonteko urtegian (Pordenone, Italia) antzeman zituztenekin. “Eraikuntza fasetik egon ziren arazoak Vajonten, teknikari adituek behin eta berriz adierazi zuten labainketa bat jazoz gero, urtegia beteta bazegoen edota mugimenduak presari eragiten bazion, hondamendi bat gerta zitekeela; Esari buruz esaten dutenaren antzekoa, alegia. Eta hemen bezala, han ez zieten jaramonik egin”, salatu du Beaumontek.

Hain zuzen ere, 1963ko urrian irristatze handi bat egon zen, urtegiaren ur-maila altua zenean, eta 260 metro kuboko bloke bat uraren gainean erori zen; 200 metroko olatu bat sortu zuen horrek. Olatuak presa gainditu zuen, herriak aurrean eraman zituen eta 2.000 hildako inguru eragin. Naturak eragindako ezbehar saihetsezin bat bailitzan “saldu” zutela salatu du abokatuak.

Tresnarik ez arriskuen aurrean

Iker Aramendia Zangozako biztanlea da, arriskua hurbilen duten herrietako batekoa, eta Esa+Ez kolektiboko kidea. Talde horrek askotan salatu du CHEk ez duela inongo larrialdi protokolorik diseinatu balizko katastrofe bati aurre egiteko, ezta 2013an jazotako krisialdian ere. Urte horretan irristatze larriak

izan ziren eskuineko hegalean eta La-saitasuna eta El Inglés urbanizazioetako 60 etxebizitza hustu zituzten. Zenbait adituk –tartean Casasek–, Zangoza hustea gomendatu zuten. “Arriskuaren aurrean tresnarik ez genduela ikusi genuen”, salatu du Aramendiak.

Ordutik ez diote borrokatzeari utzi, eta kontzientziarazioa piztea lortu dute: “Ez da erraza izan jendea egoeraz jabetaraztea, arazoak urte asko baitaramatza, eta bat-batean esatea herri oso bat arriskuan dagoela marra gorri bat pasatzea da, eguneroko bizimodua planteatu behar duzu”, adierazi du. Egonezin horrekin bizitzea zer den azaltzea kostatu zaio: “Hemen euria barra-barra egiten duenean, gauean, zure mamuetan pentsatzen hasten zara eta ezin duzu hori baztertu. Gero kalera zoaz, eta han ere gaia ateratzen da. Eta informaziorik ez dagoenean beldurrak areagotzen dira”.

Hala ere, etorkizunari itxaropentsu begiratzen dio Aramendiak: “Nafarroako Legebiltzarraren gehiengo gure alde dago orain, arazoa konpontzeko premia onartu dute eta euren eskumenak mar-txan jarri dituzte. Gainera, Europako Batzordeak ingurumenari gehiago begiratzen dio eta hori aukera izan daiteke. Epaille batek gure kasua eskuan hartuta, txosten teknikoekin, ezingo du beste toki batera begiratu: gelditu, aztertu eta irtenbide bat bilatu beharko du”. ■

ITSAS HEGEMONIA IPURDIAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Salamina uhartea (Grezia), K.a. 480. Jerjes buru zuen Persiar Inperioko itsas armada Greziako hiri-estatuetakotako flotaren aurka borrokatu zen. Greziarrek irabazi zuten gudua eta itsas hegemonia haiena izango zen K.a. V. mende osoan, guduan erabilitako trirremei esker.

Trirremeak jatorri joniarreko gerraontziak ziren. Guduetan zuten eraginkortasunari esker, Mediterraneoko gerraontzi nagusiak izan ziren K.a. VI. mendetik K.o. IV. mendera bitartean.

35 metro inguru luze ziren, eta lau-erren bat metro zabal. Oihal bat edo bi izaten zituzten –garaiaaren arabera– eta arraunlariak altuera desberdineko hiru lerrotan jarduten zuten. Nabigatzeko nagusiki oihalak erabiltzen zituzten, hau da, haizearen indarra. Arraunlarien indarra, aldiz, guduetarako baliatzen zuten bereziki.

Trirremeetako eskifaia kapitainak, dozena bat marinel eta ofizialek, beste dozena bat soldadu eta arkularik eta 170 arraunlariak osatzen zuten. Arraunlariak gizon libreak izan ohi ziren eta soldata nahiko ona eta entrenamendu berezia jaso ohi zituzten, erritmo egokian jardun ahal izateko. Goiko lerroan aritzen ziren arraunlariak gehiago ordaintzen zieten, arraunek urarekiko zuten angelu makurrak ahalegin handiagoa egitera behartzen baitzituen.



THE CREATIVE ASSEMBLY

Greziar arduradun militarrek gorputzez gorputzeko borrokak alde batera utzi zituzten itsasoan, eta etsaien ontziak jo eta hondoratzea zuten helburu nagusi. Horregatik zeuzkaten hain soldadu gutxi eta ontzia erraz manio-bratzeko hainbeste arraunlari. Gainera, arerioen ontziak suntsitzeko, trirremeei brontzezko edo burdinazko muturrak eranstean zizkieten brankan, flotazio-marratik behera. Baina persiarrek ere bazituzten muturdun trirremeak. Orduan, teknologia bera izanda, nolatan nagusitu ziren greziarrak Salaminan eta Mediterraneo osoan?

Arraunlariak ipurdi azpian zeukaten erantzuna: *hyperesion* izeneko kuxin edo zapia. Badirudi kuxina Temistokles (K.a. 525-460) asmatu zuela, Sala-

3D irudi honetan, trirreme bat ikusten da beste ontzi bat trabeska jo eta txikitzen.

minako gudua estrategia prestatu zuen jeneralak berak. Animalia-larruz eginak zeuden eta koipez estaltzen zituzten, arraunlariak, eserlekuetan finko egon ordez, aurrera eta atzera mugitu zitezen, egungo banku mugikorrek on-tzietan egin ohi duten antzera. Mugimendu horri esker, ahalegin berdintsua eginez, arraunaren bidea luzatu egiten da eta, hala, palada bakoitzaren eraginkortasuna handitu. Ondorioz, arerioek baino azkarrago nabiga zezaketen eta, are garrantzitsuagoa dena, bat-batean biratzeko gai ziren, ontziak albotik eraso eta trabeska jotzeko. ■



Emakume gutxi Nobel saridunen zerrendan

1901ean banatzen hasi zirenetik, ia 50 emakumek jaso dute Nobel saria. Guztira 900 saritu inguru izan dira eta horrek esan nahi du emakumeen portzentajea %6 ingurukoa dela. Marie Curie (argazkian) izan zen 1903an Nobela jasotzen lehena, eta saria bi aldiz eman zioten, gainera. Sari gehienak literaturan, ba-

kean eta medikuntzan jaso dituzte emakumeek, eta 2009a izan zen haien zatirik urterik "onena": lehenengoz emakumezkoa izan zen ekonomian saritua, Elinor Ostrom, eta guztira bost emakume –eta zortzi gizon– zeuden sarituen zerrendan. Azken bi urteetan, ordea, ez da emakumerik ageri palmaresan. ■

Estereo bat bero



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Metro kubo egur gordin, horixe da estereoa. Guk zuhaitzek, arbolek eta zuhaixkek duten parte gogor guztiei deitzen diegu egurra. Zenbaitek parte gogor hori bitan banatzen dute: zura eta egurra. Gaurkorako berdin dit, sutan erretzekoaz ariko naizenez, era batera edo bestera egurra.

Egur batetik bestera ere badago bada aldea. Trinkoak, astunak, arinak, biguinak, gozoak... Egurretan ere denetik. Eta sutan jarritakoan? Eltzea sutan jarrita probatzen omen da, baina su hori egin behar duen egurra ere ederki probatuko du garrak.

Lagun amerikar batek bidali dit han erabiltzen duten su egurraren berotze indarraren neurria. Hiru mailatan banatzen dute egur jendea, gasolinarekin alderatuta ematen duten beroaren arabera.

Lehen multzoko egurren estereo batek 210 eta 260 litro arteko gasolinak adina bero ematen du. Hauek dira: amerikar pagoa (*Fagus grandiflora*), sagarrondoa (*Malus x domestica*), ipar haritza edo haritz gorria (*Quercus rubra*), intxaurrendoa zuria (*Carya ovata*), astigar azukreduna (*Acer saccharum*), amerikar lizarra (*Fraxinus americana*),



haritz zuria (*Quercus alba*) eta urki horria (*Betula alleghaniensis*).

Bigarren multzoko estereo batek 160 eta 210 litro arteko gasolinak adina berotzen dute: amerikar zumarra (*Ulmus americana*), gerezioondo beltza (*Prunus serotina*), Douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*), astigar gorria (*Acer rubrum*), zilar-astigarra (*Acer saccharinum*), amerikar alertzea (*Larix laricina*) eta paper urkia (*Betula papyrifera*).

Hirugarren multzoko egurrek sortzen duten energia 105 eta 155 litro arteko

gasolinaren parekoa da, hauena: amerikar lertxuna (*Populus tremuloides*), amerikar makala (*Populus deltoides*), kanadar tsuga (*Tsuga canadensis*), pinu okerra (*Pinus contorta*), haltza gorria (*Alnus rubra*), sekueoiak (*Sequoia sempervirens* eta *Sequoiadendron giganteum*), Sitka abetoa (*Picea sitchensis*), tua erraldoia (*Thuja plicata*) eta estrobo pinua (*Pinus strobus*).

Negua amaitu aurretik, gure inguruko egurren energia balioa ea aurkitzen duan... ■

Nafarroako 'piko de peralta' piper ekologikoa



ZURE ESKAERA EGIN!



Piperra 4 eratan eska daiteke:

gordinik; 2.10€/kg

erreta; 2.6€/kg

erreta eta garbia; 3.90€/kg

hutsean poltsaratua; 4.30€/kg

Eskariak 2017/10/27 arte jasoko dira.

Alkartasuna Kooperatibaren:

Atallu industrialdea 26, Usurbil

943 361 114 eta 630 938 027

alkartasuna@usurbil.com

www.alkartasuna.eus



Landa lurrak berreskuratzeko lanean Goierri Garaian



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Zer berri gure herrietako landa eremuan? izenburupean jardunaldiak egin dituzte irailean eta urrian Goierri Garaiko zazpi herritan. Eskualdeko landa lurren eta nekazaritzaren egoera aztertu du Ambientalialia21 ingurumen aholkularitzak, udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundia- ren babesarekin eta Goimen Goierriko Landa Garapenerako Elkarteak koordinatuta. “Nekazaritzak gure gizartean duen papera, gure lurren egoera edota elikaduraren aldetik gure herriek duten autonomia maila aztertzeke lanketa egin da”, azaldu digu Manex Aranburu Goimeneko teknikariak.

Landa lurrak beren ahaletik behera, eta asko erabili gabe

Lurraren sailkapena egin dute diagnostikoan, erabileraren arabera: baratze lur- rarak, fruitu-arboletarakoak, basorakoak edota abeltzaintzarako erabiltzen dire- nak. Eskualdeak 11.000 hektareako lur azalera hartzen du, eta %95 landa ere- mua da. Baina barazki lurrek eta soroek zati oso txikia hartzen dute. Zer dela eta? Bada, lur askok jabetza pribatua dute, eta jabeek ez dute hura lantzen. “Lehen aldia da historian natur baliabi- deak izanda, lurra kasu, horiek aktiboan jarri gabe dituguna, erabilerarik eman gabe”, dio Aranburuk.

Oinordetzan jasotako lurrak dira ho- rietako asko, jabeek saltzeko inongo asmorik ez dutenak. “Sentsibilizazio la- nean ari gara. Jardunaldiak egin ditugu eskualdean lurraren funtzio sozialare- kin lotuak, herritarrei adierazteko zen- bateko eragina duen paisaiak, lurrak eta lurrarekin egiten dugunak”.

Bitartean, tokiko elikagaien eskaerak gora

Lehenagotik eskualdean martxan zuten “Bertatik bertara” proiektuarekin, he- rritarren tokiko produktuak eta garaian garaikoak kontsumitzeko ohitura han- ditzen ari zirela ikusi zuten. Zabaltzen ari den eskaera horri erantzuna ema- tea, ordea, zail dagoela azaldu digu Goi- meneko teknikariak, nekazaritzan hasi nahi duten gazte askok lurrak lortzeko zailtasunak dituztelako, besteak beste.

Hori dela eta, lurjabeen eta baserritik bizi nahi dutenen artean formula be- rriak bilatzea da gakoa, teknikariaren ustez: maiztertza bidezko akordioak lortzea, adibidez. “Azken urteetan ne- kazaritzaren joera beheranzkoa izan da, eta zerbait egiten ez badugu lur pila bat libre, abandonatuta, dauden eszenate- gian aurkituko gara”, dio. Egoera horri aurre hartzea da ideia, eta horretarako alde guztiek egin beharko dute lanke- ta: lurjabeek, nekazariak, kontsumitzaile- lek, nekazaritza erakundeek nahiz ins- tituzioek. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Urriak 19: Hondarribia

19:00etan Kultur Etxean *Landareak Lan- tzen* Jakoba Errekondoren liburu berria- ren aurkezpena.

Urriak 20: Basauri

9:30ean Ibaigane Kultur Etxean *Land- areak Lantzen* aurkezpena.

Urriak 21: Bera

11:30ean Lurraren Egunaren baitan *Land- areak Lantzen* aurkezpena.

Urriak 22: Leintz-Gatzaga

Landareak Lantzen aurkezpena eta kon- sultategia, Gatzaren Azokan.

Urriak 28: Lekeitio

12:30ean Usategi herri baratzean *Land- areak Lantzen* aurkezpena.

Urriak 29: Tolosa

Bedaio auzoko Azoka Berezian, *Land- areak Lantzen* aurkezpena.

Urriak 30: Lazkao

18:30ean Gerriko Aretoan *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Urriak 18: Elizondo

10:00etan hasita, PAC 2015-2019 aurkez- pena. Informazio gehiago, EHNE Nafa- rroara deituta: 948 254 841.

Urriak 19: Hernani

9:30ean hasita Orona-Ideon “Etxeko eta auzokonpostari buruzko 7. mintegia”.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"EMAKUMEON ESKUBIDEEN ALDE" LIBURUXKA

3

Defendatzen gaituztenen defentsan

Emakumeen Giza Eskubideen alde borrokan ari diren feministei aitortza egin eta berauek babesteko asmoz, sei feministari eginiko elkarrizketa laburrak biltzen ditu liburuxkak: June Fernández kazetaritza feministaz mintzo da patriarkatuaren kontrabotere gisa; Arancha García azaldu du bake prozesuetan aitortzen ez den egoera bat, hau da, gatazkak emakumeengan izan duen eragina; Marusia López Cruz Ertamerikako Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Iniziatibako kidea babes sareez mintzo da; Leire Lasa-k errefuxiatu emakumeek nazioarteko babesa jasotzeko dituzten zailtasunak agertu ditu; Marta Mato-k Espainiako estatuan mugimendu feministak pairatzen duen errepresioa aztertzen du; Ansur kolektiboak zaintzaren gaia lantzen du; eta Bashe Nuhem Komunikazio Indigenaren Elkarte Komunitarioko kidea herrien borrokez mintzo da.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

MUGARIK GABE

PDFan irakurgai:
www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2016/06/cuadernillo-elkarrizketak-euskaraz.pdf

#feminismoa
#gizaeskuibideak
#autodefentsa
#zaintza

Urriko sariak

1



Kimutx liburuak
4 ale

2



Bilgune Feministaren
ETEN tratu txarrak diskoa
2 KD

3



Mugarik Gaberen Defensoras:
emakumeon eskubideen alde
2 elkarrizketa liburuxka

4



Ekologistak Martxan
Euskal Herria: ezkutuko zorra
4 DVD

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Zuek gabe ez legoke Argia Egunik



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Zorionez, ARGIA badugu txoko hau eta probestu nahiko genuke pasa berri den urriaren 7an Gasteizko Argia Eguna aurrera atera zedin modu batera edo bestera lagundu diguten guztiei esker-rak emateko. Euskaldunok hitz gutxi-koak omen gara, eta eskerrak ematea ere asko kostatzen omen da; baina, eta zein ederra den? Bi hitz, hamabi letra besterik ez, eta batzuetan horrenbeste kostatzea...

Urriak 7ko zitak badu aurretik prestaketa lan handi bat, eta urtero ahalegintzen da ARGIA jaia ospatzekoa den herri edo hiriko eragile eta Argiazaleekin bildu eta eguna elkarlanean prestatzen. Aurten gurekin lanean aritu dira Gasteizko mugimendu feministako kideak, Ika euskaltegiko kideak, Abetxukoko auzo elkarteak, Errekaleorreko lagunak, Berriztu!... eta guztiak elkartzeko gerizpe goxo bat eskaini digu Oihanederreko Lazarraga elkarteak. Mila esker guztioi. Hala Bedi irratiko eta Arabako Aleako gure adiskideei ere, nola ez, esker anitz. GEU Gasteiz Euskalduna eta Martxoak 3 elkarteak izan genituen egitarauko ibilaldietan gida Gasteizko txokoak azaltzeko, albokariak eguerdia giroten izan

genituen, Lierni Arrietak hazi eta buztin bolak egiten erakutsi zigun, Gaztetxeak bere ateak zabaltu zizkigun egunari amaiera emateko kontzertuak bertan antolatzeko, Auzolanako lagunak frontoia biltegi modura erabiltzen utzi ziguten. Fifori, kontzertuak lotzen, kartelak zabaltzen eta azpiegiturarekin laguntzeagatik. Bionekarabari eskerrik anitz Bizi Baratzearrekin elkarlanean aritu eta azokan lekutxo bat egiteagatik. Goian Alde Zaharra Bizirik elkarteari milesker, jolas kooperatiboak prestatzeagatik. Kafea prestatzen ere utzi ziguten Larratxo kiroldegaren ondoko elkartean, Berangoko gure harpidedun den Mari Tere Gonzalezi ere besarkada bat bazkalostean jan genituen euskal pastel goxoak egiteagatik. Gasteizko Udala, Arabako Aldundia eta Erkide erakundeak... Eta noski, bertaratu zineten Argiazaleoi eta Argiazale horiek gerturatu ahal izan zitezen etxean zaintza lanetan geratu zineten guztioi ere gure eskerrik beroenak.

Ziur ahalegin handi baten ostean ere izen guztiak ez ditudala oroituko, baina Argia Eguna posible egin duzuen guztioi, ARGIAko lantalde osoaren izenean mila esker! ■

Kataluniar eta euskaldunak batzen dituen kamiseta ziztuan zabalduz doa

Katalunian indar handienez entzuten den lema, *"Els carrers seran sempre nostres-Kalea gurea da"* dioen kamiseta jarri dugu argia.eus-en dendan salgai urriaren 10ean eta lehen momentutik harrera beroa izan du. Kazetaritza independentea sustatzeko modua ere bada Katalunia eta Euskal Herria batzen dituen kamiseta hau: 13 euro ordainduta, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako *La Directa* herri hedabideari, eta 2 eurokoa ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.

Katalunian ere zabaltzen hasi

ARGIAren dendako ohar guztiak itzuli ditugu katalanera, baita zenbaki hone-tako kontrazal barruan ikusiko duzun publizitatea ere. Tresnak prest izanik, *La Directa* hasi da kamiseta hauen sustapena egiten Katalunian. Horren adibide, bertako kazetari David Bouk bidalitako txioa (behean irakurgai). Lagundu zuk ere zure ezagun kataluniarren artean ekimen honen berri zabaltzen. Urte askoan kaleak elkartu gaitzala Katalunia eta Euskal Herriko herritarrak!

David Bou

@dvdbou

Les amigues d'@argia són tan maques que fan samarretes solidàries amb Catalunya i @La_Directa. Encarregueu-les aquí: <https://azoka.bizibaratzea.eus/produktua/31>

Samarreta Argia-Directa per 13 €*

* 2€ en concepte de despeses d'enviament

Dóna suport a la comunicació transformadora:
Argia (Euskal Herria) i la **Directa** (Països Catalans)

Compra-les aquí: <https://azoka.bizibaratzea.eus/produktua/31>

Escuela de Oficios Electrosonoros

"Elektronikaz aritu nahi dugu kantak sortzera deituak sentitzen ez direnekin"

Mila modutara diseina daiteke elektronikari buruzko tailer bat. Irakats dezakezu ohiko softwarea erabiltzen, edo behar dituzun tresnak zuk zeuk sortzen. Muga zaitezke teknika hutsera, edo jar ditzakezu soinuak testuinguruan. Bere horretan onar dezakezu elektronikaren historia, edo saia zaitezke ertzeko ahotsak erdiguneratzen. Ohiko gidaliburuetatik haragoko ikuspegiak irakasten saiatzen dira Madrilgo Escuela de Oficios Electrosonoros proiektuko kideak.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Elkarren osagarritzat dute beren burua Jesús Jarak eta Patricia Raijensteinek. *Musika informatikoa* ikasketak egin zituen aurrenekoak Alemanian, eta handik bueltan ohartu zen kasik ez zegoela musika elektronikoa egiten irakasten zen tailerrik. Orduan otu zitzaion Escuela de Oficios Electrosonoros sortzea. "Izenak aditzera eman nahi du lantzen ditugula teknologia, soinua eta elektronika, baina ez garela dantzarako musika egiten duen DJ eskola soilik. Era berean, ofizio hitzak badu konnotazio popular bat, edonorentzat ulergarria den zerbaiti egiten dio keinu". Proiektua diseinatzerakoan Raijensteinekin jarri zen harremanetan, eta hark gehitu zituen beste geruza batzuk, generoarena edota arte-hezkuntzarena, esaterako. Bien artean, ertz askotako ikastaro bat osatu dute.

Zer dela eta sortu zenuten halako ikastaro bat?

Jesús Jara: Elektronikaren historia aztertzen hasi bezain pronto ohartzen

zara: inon ez da emakumerik ageri. Gure ikastaroan akats berbera egitea barkaezina litzatekeenez, erabaki genuen emakumeak erdigunean jartzea. Hortaz, teknologia erabiliz musika egiten irakasten dugu, baina elektronikaren garapenean giltzarri izan diren emakumeen lanetan oinarrituz. "Aitzindari" izendatu ditugun sei emakumeren bizitza kontatzen dugu, azalduz zergatik izan ziren hain garrantzitsuak, ze ekarpen egin zuten...

Patricia Raijenstein: Historia ofizialean tokirik ez duten beste historia horiek azaleratu nahi ditugu, jende asko sentitzen delako horiekin identifikatuta, eta balio dielako ahalduntzeko. Emakume aitzindari mordera dago, baina oraingoz sei hartu ditugu oinarri. Pauline Oliverosek, adibidez, asmatu zuen *deep listening* kontzeptua, oso interesgarria musikari ez direnentzat ere, entzuteaz hitz egiten duelako, soinua desnaturalizatuz. Hortik tonalitate aukera berriak sortzen dira elektronikarako, bat-batean beste era batera entzuten ikasten

duzu. Aipatzekoa da Wendy Carlos ere, *A Clockwork Orange* filmeko soinu banda egin zuena, musika klasiko tradizionala sintetizadoreekin nahasiz.

J. Jara: Edo Sister Rosetta Tharpe, esaterako. Rock'n'roll-aren aitzindaria eta, gainera, beltza.

P. Raijenstein: Beste bat da Delia Derbyshire, musikari zoragarria, *Dr. Who* telesailaren introa egin zuena, soinuak zinta magnetikoarekin modelatuz. Edo Bebe Barron, bere senar Luis Barronek eraikitako makinekin konposatzen zuena.

Eskulanari ere garrantzia ematen diozue. Oinarrizko sintetizadoreak egiten irakasten duzue ikastaroan.

J. Jara: Eszena elektronikoan musikariaren irudi jakin bat gailentzen da: gizona, mendeabaldarra, zuria, heteroa eta batere disfuntziorik gabea. Erabiltzen diren tresnak, ia beti, software pribatuz eginak izaten dira, garestiak, askorentzat eskuraezinak. Eta inor gutxi egiten



du lan modu gardenean, egiten duen hori egitera nola ailegatu den azalduz. Eredu horren aurkakoa aldarrikatzen dugu. Egin itzazu zuk zeuk zeure tresnak, eta esperimentazioa izan dadila musika elektronikoa sortzeko prozesuaren zati bat gehiago.

P. Raijenstein: Ideia horiek interesatzen zaizkigu: *Do It Yourself*-a, norbera ahalduntzea... Teknologiarekin aritzean, oinarritzkoa da jakitea beti iritsiko dela frustrazio une bat, baina ingurukoekin elkarbanatuz horri aurre egin dakioke. Huts egitea esperimentatzeko eta beste toki batzuetara iristeko modu bat da. Oso ederra da akatsa, hortik uler daitekeelako musika solfeotik edo akademiatik sekula ulertzen ez den moduan. Nahiago dugu intuizioz eta elkar lagunduz ikasi, muturreko exijentzian edo zigorrean oinarrituz baino. Era berean, dikotomiak hautsi nahi ditugu: gorpuzta eta adimena, adituak eta amateurrak, gizonak eta emakumeak, teoria eta praktika...

Zuei entzunez oroitu naiz *Europe in 8 bits* dokumentalaz. Bertan azaltzen dira Europako hainbat musikari, tramankuluak birziklatuz instrumentuak eraiki eta garai bateko bideokontsolen tankerako *chiptunes*-ak sortzen dituztenak.

P. Raijenstein: Ez da Europako mugimendua soilik. Hego Amerikan –Kolonbian, adibidez– sekulako zarata eszena dago, oso poetikoa dena, bidenabar. Izugarri interesatzen zait teknologiaren ikuspegi poetikoa, pentsamendu zientifikoko zehatz bat izan arren, ingurukoekin erlazionatzeko aukera berriak sortzen dituelako.

J. Jara: Corazón de Robota artista txiletarrak aipatu izan du inoiz korrante artistikoz gainezka dagoela mundua, eta orain inoiz baino baliotsuagoa dela musika egiteko modu propio bat topatzea. Gure ildoak bat egiten du ideia horrekin. Ez dugu elektronika irakasten *Ableton Live* aplikazioa erabiliz, tresnak berak gauza asko baldintzatzen dituelako: teknologia jakin bat erostea, diru bat gas-

tatzea... Aldiz, behar duzuna zuk zeuk fabrikatzen baduzu, ziur asko errazago topatuko zure ahots propio hori, gai-nontzekoen desberdina.

P. Raijenstein: Ziur asko ikastaroan parte hartzen duten guztiek ez dute musika egiten amaituko, baina bidean forma berriak aurkituko dituzte. Eta oinarritzko beste kontu bat: entzutea. Ikus-entzunezko mundu batean bizi gara, eta oso interesgarria da ikuspegi bisuala, baina agian arreta gehiago jarri behar genioke geure burua eta ingurukoak entzuteari.

Ikastaroko lehen ariketa inguruko soinuak entzutea izan da, oker ez banabil. Ze lotura dago entzunaldi aktiboaren eta musika elektronikoaren artean?

J. Jara: Maila guztietan ikasi behar dugu entzuten. Begira, bestela, Donald Trumpi, edota Kataluniari eta Madrili. Arlo artistikoan, berdin. Adimena eta belarriak ireki behar ditugu iristen zaizkigun soinuak aurrez ez epaitzeko. Madri-

len gazteekin egiten ditugun tailerretan, mila bider entzun dituzten pop kanten *mashup* bat jartzen diegu, preseski kontura daitezen ez direla musika entzuten aritu, letra baizik. Ez diete inoiz erreparatu halako kantetan dagoen soinu aberastasunari. Ikastaroen hasieran egiten ditugun entzunaldi aktibo ariketak ere ildo horretan doaz. Adimena irekitzen digute, eta entzun ohi ez ditugun soinuak entzuten hasten gara: batzuk zaratatsuagoak, besteak biziagoak, zorrotzagoak... Rihannaren produkzio neurtu eta kalkulatu batean sekula aurki ezin daitezkeen soinuak.

P. Raijenstein: Inguratzen gaituzten soinuak aintzat hartzen ikastea da gako. Entzute ariketek laguntzen dute inguruko soinu paisaia hobeto ezagutzen, inoiz erreparatu gabeko erritmoak aurkitzen, hirietako ekologia akustikoa baloratzen... Eta, noski, ustez publiko kultuarentzat diren musika piezak hobeto balioesten.

Entzunaldi aktiboa, ekologia akustikoa... musika irakaskuntza konbentzionalean gutxitan aipatzen diren kontzeptuak dira.

J. Jara: Kontserbatorioan, entzutea da tresna bat, interpretatzen ari zaren pieza hobeto ulertzeko. Dena da interpretazioaren menpeko. Aldiz, Pauline Oliverosek proposatzen du entzulea ere obraren zati dela, hura entzuten ari denez gero. Entzutearen kontzeptu hori interpretaziotik harago doa. Eta musika tradizionalaren markotik ateratzen bagara, zer esanik ez, ez dago inon hezkuntza arautu edo ez arauturik behartzen zaituena tren baten soinua entzutera, edo hiri batena, salbu eta R. Murray Schaferrek egindako esperimendu batzuk.

P. Raijenstein: Tira, Oliverosek berak ere egin du zerbait. Baina sakoneko arazoa hezkuntza eredua da. Ikasleek derrigor entzun behar diote irakasleari, baina ez alderantziz. Hezkuntza hierarkiko eta pasibo hori ikasleenganako errespetu falta izugarria da. Gu aktibismoa eta hezkuntza garaikide berritzailetik gatoz, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleari entzutea. Ikasgela batean egon daitekeen informazioa oso anitza da. Guk daukagu informazio jakin bat, ikasle bakoitzak dauka beste bat, oso baliotsua, eta sekulako pena litzateke hori galtzea guk gehiago hitz egin behar hutsagatik. Parte hartzaile guztiei en-

» **JESÚS JARA:**

“Maila guztietan ikasi behar dugu entzuten, begira bestela Trump eta Katalunia-Madril harremana”

» **PATRICIA RAIJENSTEIN:**

“Hezkuntza eredua da sakoneko arazoa eta ez bakarrik musikan”

tzunez asko aberasten dira eskolak, ñabardura askoz gehiago hartzen dituzte. Bloke estatiko huts beharrean, zerbait moldagarriago bihurtzen dira.

Sarri lotu izan da musika elektronikoa gau giroarekin eta drogekin. Alegia, entretenimendu hutsarekin. Aurreiritzi horri aurka egin nahi diozue?

J. Jara: Erabat. Proiektuaren funtsa da musika elektronikoa denentzat ahalik eta eskuragarrien egitea, kultura den heinean eskubide unibertsal bat delako. Elektronikaren historia egiten denean ere garrantzitsua da ikuspegi hori: gau batez diskoteka batean jende multzo bat bildu eta zerbait berritzailea egiteko elkartu baziren, hori herri honetako musikaren historiako parte da, eta kultur gertakari bezala ulertu behar da, ez soilik desfasatu batzuek ondo pasatzeko egindako zerbait bezala.

P. Raijenstein: Elektronika kultura garaikidea da. Gero egia da ertz asko dituela kontuak, ze adibidez, LGTBQ komunitatean lotzen da musika elektronikoa gau giroarekin, identitatea eraikitzeke tresna bezala ulertzen dute.

Elektronikak Euskal Herrian arrakasta hain berantiarra zergatik izan duen aztertzeak tesi baterako ematen du. Berez daukan estigmak beste konnotazio batzuk hartzen ditu gatazka egoera batean.

P. Raijenstein: Hemengo elektronika eszenaz ditudan oroitzapenak dira oso giro underground batekoak. “La Ruta

del Bacalao”-rekin gertatu zen antzerako zerbait. Soinu aldetik mugimendu interesgarria izan zen, baina pixkanaka masifikatu eta estigmatizatu egin zen. Jendea guztiz drogatuta joan ohi zen diskoteka batetik bestera kotxez, eta noski, asko hil ziren errepidean. Hor sortu ziren Chimo Bayo bezalako ikonoak. Batzuentzat jeinu bat da, eta besteentzat kontrakoa. Baina giro hartan Kraftwerken eragin handia zegoen, adibidez. Eta aztertzen baduzu ikuspegi artistiko batetik, drogen auziaz harago, soinu oso interesgarriak sortu ziren, eta baita espazio komunitario oso sendoak ere.

Ze asmo duzue aurrerantzean?

J. Jara: Genero ikuspegitik abiatzen gara, baina aniztasuna bilatzen dugunez, baditugu ildo gehiago ere. LGTBQ komunitatean musika elektronikoa nola garatu den aztertzen ari gara, eta nola, neurri batean, elektronika jatorritik bertatik dagokien, Chicagoko lehen klubetan ibiltzen ziren beltz gay haiengatik. Era berean, aniztasun funtzionala duten pertsonengana gerturatu nahi dugu elektronika, eta emakume aitzindariak aurkitu ditugun bezala, eredutzat baliozko dieten beste aitzindari batzuk topatu. Azken batean, elektronikaz aritu nahi dugu kankak sortzera deitua sentitzen ez den jende horrekin.

P. Raijenstein: Kulturak, musikak eta historiak identitateak sortzen ditu, izateko aukera berriak. Beraz, musika elektronikoaren historian genealogia berriak sortzea aukera bat da identitate antizagoak sortzeko.

J. Jara: Madrilgo Casa Árabekin ere jarri gara harremanetan, badaukagulako gogoia Europatik eta AEBetatik haragoko erreferenteak topatzeko, mendealdetako kulturatik kanpoko jendearekin lan egiteko. Anbizio gutxiagorekin eta errespetu gehiagorekin gerturatu beharra daukagu. Aztertuko ditugu musika elektronikoaren ze adierazpide daude herrialde arabiarretan, eta ea ze antzekotasun dituzten Europakoekin. Badakigu, feminismoaren auzian adibidez, ezingo garela gure eskema mendealdarrekin joan.

P. Raijenstein: Mundu arabiarra oso dago estigmatizatuta eta estereotipatuta. Feminista arabiar batzuk gehiago aztertut behar ditugu. Inoiz baino gehiago, entzutea dagokigu, hitzaren zentzurik zabalenean. ■

PAGOA
kafe antzokia
OIARTZUN

LITERATURA ETA
MUSIKA EUSKARAZ

BERNARDO ATXAGA

+

INUN

AZAROAK

03

22:00

SARRERAK

A: 8€

T: 10€

OIARTZUN
AMAZKAR, ELORSORO,
PAGO KAFE ANTZOKIA.

DONOSTIA
DONOSTI ROCK.

ERRETERIA
ARKAITZA TABERNA.

ONLINE
TICKETMASTER, TICKETEA,
COLECTIVIA, MAUKA,
OFERPLAN, KUTXABANK.



www.pagoa.eus

PAGOALDEA 7,
20180 OIARTZUN

TEL. 619 421 153

OSTIRALAK ETA LARUNBATAK
17:00 - 06:00



berria

ARGIA

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



PAGOA®

EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ikasitakoa partekatuz



Amaia Alvarez Uribe

Arantxa Urretabizkaia dioenez hogeitaz urte behar izan ditu idatzi nahi zuen lan hau papereratzeko. Eta ez da harritzekoa. Irun eta Hondarribiako alardeen gaiak ari da bertan, "euskal gatazka" izendatu daitekeen gure tira-biretako batez. Tabu izateraino heltzen den horretaz.

Kronika, testigantza, saiakera eta autobiografia topa daitezke *Bidean ikasia* liburuan. Kazetaritza hartutako behatzaile (ahalik eta) objektibo(en) a dugu batzuetan, bere inguruan gertatzen ari dena deskribatu nahian, alarde parekiderako asmoa agertu zenetik egon den bilakaeraren berri emanez, angelu ugaritak.

Honekin batera lekukotasun literarioa dugu, Hondarribiko herritar baten bizipenak kontatzen dizkiguna, alardearen inguruko emozioak eta ekintzak partekatuz eta irakurlearen gogo eta azalean eraginez.

Euskadi Literatura Saria irabazi berri du lan honekin, "heldutasun betean errealtateari bere osotasunean begiratzen jakin duen idazlearen emaitza (delako)" eta "literaturaren helburua betetzen du; irakurlea asaldatu, lastandu eta gai batean argia egin". Egileak dio "gorrotorik gabe (idatzi dut), helburua ez delako mendekua, konponketa baizik". Hortaz, denok irakurtzeko modukoa dela uste dugu.

Liburu honetako ahots narratiboak kanpora eta barrura begiratzen du. Bere herrian gertatzen denaz aldarrikapena eta salaketa egiten ditu egoeraren deskribapen poliedrikoaren bidez, egia begirada desberdinen bilduma egi-

Bidean ikasiaARANTXA
URRETABIZKAIA

Pamiela, 2016



Arantxa Urretabizkaia Bejarano idazlea (Donostia 1947).



nez lortzen baita. Baina honekin batera lehen pertsonako narrazioa dugu, bizitako esperientzia konpartitzen du irakurleok, bere minak, pozak eta kezkek adieraziz.

Azken finean, gogoetarako proposamena egiten digu. Alardea deseraikiz irakurleekin gatazka honen irtenbidea eraikitzeko proposamena luzatuz. Eta eskerrak eman nahi dizkiogu hemendik egindako ahaleginagatik, tabu bati buruz hitz egitea ez delako samurra, eta are gutxiago gatazkaren muinetik.

Kontuan izan, "tabu" hitz polinesiarrak "debekatua" esan nahi duela, talde baten arabera onartezina den zerbait, ukitu ezin dena, arrotzat jotzen dena, hutsegite barkaezina, eta legeak zigortua izan daitekeena.

Eskerrik asko bidean ikasi duzuna gurekin partekatzeagatik, Arantxa, isilik geratu eta etxean gorde beharrean plazarara ateratzeagatik. ■

» DISKOA

Arima sutsuak



Joxi Ubeda

Rock doinu indartsuak jotzen ditu Deus Ez taldeak, bizitasun eta energia handiarekin. Hainbatetan rock gogor ukituak antzeman daitezke kantuetan, eta melodiak ongi zaintzen dituzte. *Rock alternatiboa* delakoaren kutsukoak dira beren kantuak.

Beren lehen diskoa jadanik kalean dute. Grabazioa Iruñeko Drum Groove Studioan egin dute, Josu Ervitirekin. Teknikari lanak egiteaz gain ekoizle ere izan da, eta denen artean soinu mardula eta trinkoa gauzatu dute, ozena. Josu eta Eric abeslari eta gitarrista elkarrekin arituak dira, Eric Deza Group taldean, eta iaz *First Step* diskoa plazaratu zuten.

Deus Ez taldekoak inguruan ikusten dutenari buruz mintzo dira kantuetan, eta beren kezkak eta sentimenduak azaltzen dituzte: "Azal eder batez estaliak, barrutik usteldutako kantuak. Abesti alai hoiek, guztiz goibeltzen naute" (*Dohainaren ordaina*); "Horma altuak eraiki ditut kanpoan zer dagoen ez ikusteko. Irribarre atseginak prestatu ditut inork nire barnean begira ez dezan" (*Barrutik*); "Ez da iluntasuna ni beldurtzen nauena gaur, baizik eta argiak erakutsi dezaken guztia" (*Itzaletan*); "Nork irekiko dizkigu begiak aurrera egin ezin dugunean? Nork eskeiniko digu bere eskua lurretik jaiki ezin garenean?" (*Bi arima*); "Soberran genuen zama itsaslabarretik bota; suntsitu berriro sortzeko; begiak itxi, ikusteko" (*Argazkiak*); "Horrenbeste izan genuen baina hala ere, nahikoa ez al zen zuretzako? Urruti zauden leku hartan entzungo ote da nire kantuen oihiu ozena?" (*Bilatzen*); "Bide okerrak beti izan dira

Deus Ez DEUS EZ

Autoekoizpena, 2017



nire gustokoenak. Alde onaren alde txarra da arduratzen nauena" (*Bide okerrak*).

Eric Deza (ahotsak, gitarra), Alex Etxeberria (baxua) eta Koldo Sagarzazu (bateria) dira taldekideak, Azkoitikoak eta Eibarkoak dira, eta 2016ko udaberrian sortu zuten Deus Ez taldea. Urtebete lanean buru-belarri aritu dira, entseatzen eta kantuak egiten, eta azkenik beren lehen diskoa irailean kaleratu dute. Taldekideen hitzetan, ilusio handiarekin jardun dute, bai entseatzeko lokalean bai grabazio estudioan, giro onean, suhartasun, gogo, grina eta kemen handiarekin eta hori nabari da kantuak entzuteko garaian, kantuek hori guztia transmititzen baitute. ■

Eric Deza,
Alex Etxeberria eta
Koldo Sagarzazuk
iazko udaberrian
sortu zuten
Deus Ez taldea.



Tokatzen dena egin

TOLOSAKO KANPORAKETA

Urriaren 14an Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zen azken final laurdenaren kronika.

Saillkapena:

Etxahun Lekue (673 puntu)

Maddalen Arzallus (670)

Jon Maia (662,5)

Beñat Lizaso (646,5)

Xabat Gallettebeitia (636)

Eneko Lazkoz (607)



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: ALBERTO ELOSEGI / XDZ



Tolosako Beotibarren ze panorama? Ba bero sapa, Xabier. Harmailak mukuru eta akustika eskasa –nahiko lan bertso batzuk ulertzen–. Oro har, leherketarik gabeko saioa joan zen, pinoi finkokoa. Maddalen Arzallus, kantakera lagun, sendo eta konfiantzaz; Jon Maia egoki, tartean behin ale onak utziz; Eneko Lazkoz erabat erori gabe baina gorabeheratsu; Beñat Lizaso txukun, noiz edo noiz borobilduz; Xabat Gallettebeitia nahiko zuzen, hamarrek txikian batez ere; eta Etxahun Lekue sendo, hasi eta buka. Baina sentipena nuen gidoiari atxikita-ko saioa zihoala, amaierarako astun samarra, eta kronikartzeko zaila. Orduan heldu zen Inesen marmarra, ohi bezala, ni atakatik ateratzera.

“Hasteko, gaurko gai batzuk ez zaizkidak asko gustatu. Eta kartzelakoan pasa egin dituk” –inoiz ez bezelako besarkada eman dizu aitak zuten gaitzat–. “Bazakiat beti gauza berekin nabilela bueltaka, baina faborez, bestela ere bazagok nahiko joera hunkigarrismorako eta gaian aita eta besarkada sartzen badituk, artefaktu hilgarri bat sor dezakek. Klaro, gero ia bertso guztietan agertzen dituk ospitalea, eritasuna, malkoak, eta,

Twittereko Patxi Bakallo troll horrek jarri zian bezala, puntularitzaren *pack* guztia –termino aski erabilgarria, bide batez–. Baina ez natorrek harekin bat, ez nitek erantzukizuna bertsolarien gain –soilik– jarriko. Gai horrekin, zer nahi duk? Derrigortua hago emozioez kantatzera, eta emozioez kantatzeak arriskuak ditik. Terreno oso laprastagarria duk, gutxi libratzen dituk errazkeriatik. Kalterik ez gai jartzaileek kartzelakoan kontrako ariketa egingo balute: malkoa bilatu beharrean, malko alerta piztu eta, kontzienteki, hunkigarrismoa saihestera bideratutako gaiak jarri”. Ez zitzaidan neurri txarra iruditu, ze egia baitzen, gaixotasunez eta malkoz jositako ariketa zioan, eta bertso gogoangarri askorik ez. “Beste inpresio bat ere izan diat saioa entzun ahala –behin hasita, Ines ez zegoen gelditzeko–. Plazekin alderatuta, txapelketan aldatu egiten duk bertsolari-entzule harremana. Plazan bertsolaria entzuleari ari zaiok kantatzen, ezinbestean. Txapelketan bertsolari batzuk epaileei kantatzen ari baliara bezala sumatzen ditiat –entzuleek ere desberdin entzuten dutela uste diat, barruan epaile txiki bat balute bezala,

etengabe baloratuz ze esaldik eman ditzakeen puntuak eta zeinek ez, baina gai hori beste baterako–. Eta kantaera horretatik sortzen duk bertso mota bat, zuzena, baina batere distirarik gabea. Bueltan-bueltan, mota horretako bertsoek puntuak pilatzen ditiztek, ondo josita eta egoki jantzita daudelako, gauza gutxi esan arren. Uste diat, adibidez, Lazkozen eta Lekueren hamarrek txikiko ariketa oso desberdina litzatekeela plazan, beste ikuspuntu batetik arituko liratekeela, beste doinu batekin, hala-ko transzendentziatan galdu gabe. Baina bazirudik txapelketan hala tokatzen dela, badagoelako aurrezarritako gidoi bat: zortziko handian ofizio zuzen bat, txikian arinkeria, hamarrekotan seriotik eta kartzelan malkoa. Konbo perfektua. Eta inor hortik ateratzen saiatzen bada, zigorra puntuetan. Maiz, eskema horrek egoki jositako bertso mediokrea saritzen dik, traketsago jositako bertso freskoen kaltetan”.

Hori entzutean pentsatu nuen salbatu nuela kronika nolabait, eta hurrengo baterako ere, ziur asko berriz nekatuko nauen arren, ez daukadala Inesi deitzea baino alternatiba hoberik. ■

Egilea: Ana Zambrano


Hitz gezidunak

Gaia: Arabako pilotalekuak

LANGELA ①	GOZATZERA BEHARTU ZAREN HORI	DAGO ZEREGINA	SINDIKATU ABERTZALEA NAFARROAKO UDALERRIA	ARAZO, GATAZKA	KOIPE HANKAREN GILTZADURA	DROGA MOTA ②
				ALEX ..., KANTARIA IGITATZEA		
LUZATU ADITZAREN INFINITIBOA SUARI DARIONA			DEITURAK ZIGORTZEKO MAKILA			
	ITXURA, EITE ... EMAN, JAKINARAZI			SARRAILA IREKITZEKO AHARI ZIKIRATUA		
HAZARAZI, HANDI EGINARAZI UNEKO JOERA NAGUSIA					MAGO AZKEN LETRA	
		NAFARROAKO HERRIA ③				NOREN ATZIZKIA MESPRE- ZUZKO HITZA
BAREALDI	ERRAINU GAZTIGU		ERRE- PIKATUZ, GOROTZA NOBLEZI TITULUA		EDADE (ALDERAN- TZIZ) ARGI	
				KAUSA ARTE (NEO- LOGISMOA)		JOKALDI, PARTIDA
EUSKAL DISKOETXEA ④		...& HARDY, BIKOTE KOMIKOA TORTURAREN AJURRAKO IALDEA	NAHASKETA ZLOTY MONETAREN IKURRA		NAZKA ADIERAZTEKO ONOMATO- PEIA PERTSONAL EZ-IRAKASLE	
				GARRAIOBI- DEAK ROENTGEN		
HELTZE, HARRAPATZE MERKATARI, TRATUGILE					ANTZETSU, GAITU	

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Gasteizko Alde Zaharreko frontoi autogestionatua. Orain dela bederatzirte auzoko hainbat talde eta lagun elkartu egin ziren pilotalekua okupatu eta beharrezko konponketak egiteko. 2008an jaio zenetik, autoantolakuntzari eta auzolanari esker jarraitzen du bizirik frontoiak. Txapaa Ahotsa



asanbladak kudeatzen du espazioa.

② Legutioko pilotalekua, herriaren erdialdean kokatua. 1967an inauguratu zuten. Hainbat pilota partidu nagusi jokatu dute bertan, final asko tartean.

③ Zuiako Murgia herrian dagoen pilotalekua. Frontoiak aparte kiroldegia ere bada, eta kontzertuak eta beste ekitaldiak egin ohi dira bertan. Hantxe jokatu zuten 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko laugarren finalaurrekoa. Udal igerilekuak ere bertan daude.



④ Gasteizko udal pilotalekua, Mendizorrotzan kokatua. 1975ean inauguratu zenetik pilota partida garrantzitsuak jokatu izan dira bertan. Araban ikusle gehien har ditzakeen frontoia da: 2.000. Pilotalekuak Jose Maria Palacios Moraza, gasteiztar pilotari handiaren ezizena darama.

Ebazpenak

T		O		E		M		K		A	
R	O	G	I	Z		O	G	E	L	U	B
A	R	A	T	I	I	D	A	R	A	Z	G
T	A	T	A	L	A	A	R	A	N	A	D
U	T	A	L	A	L	A	R	A	T	A	
L	Z		K	U	R	E	I	K	A	B	L
A	E	K	O	R	E	L	K	A	T	Z	A
R		T	R	A	P	I	L	A	R	I	A
I	T	R	E	L	K	A	N	I	D	E	
	R	A	P	I	L	A	J				
I	E	N	A	A	I						
A	N	A	L	O							
O	K										

Lola Lopez. Aniztasuna aldarri



Bartzelonako Udaleko Immigrazio, Kultura Aniztasun eta Dibertsitate zinegotzia da Lola Lopez (Galizia, 1957) antropologoa. Bizikidetzaren alde eta islamofobiaren kontra ibilbide luzea egin du Kataluniako hiriburuan, eta aurretik Kataluniako Ikus-entzuneko Kontseiluan (CAC) eta Zurrumurruen kontrako Sarean lanean aritua zen.

“Islamari erasotzeko egiten da emakume musulmanen eskubideen aldeko diskurtsoa”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Saioa Baleztena
@SaioB

Enpatia bidelagun

“Galiziatik Bartzelonara ekarri ninduten 5 urte nituenean. Nire gurasoak lehenago etorri ziren Bartzelonara eta ni amonarekin bizi nintzen. Han zoriontsu nintzen eta bat-batean, tren batean sartu ninduten Bartzelonara iristeko. Pisu txiki batean bizitzen hasi ginen, eta nik urteak eta urteak behar izan nituen hemengo bizitzara egokitzeko. Betidanik pentsatu izan dut enpatia eraman nauela egiten dudana gauzatzea eta kultura eta erlijioaren aniztasunaren aldeko borrokan murgiltzea. Ni agnostikoa naiz baina ezin hobeto ulertzen ditut fededunen beharrak”.

Bi hilabete pasa dira. Nola dago Bartzelonako abuztuaren 17ko atentatuaren ondotik? Kontaktuan gaude komunitate musulmanarekin, baita diskriminazioaren kontra lanean ari diren elkarrekin ere, eta orain arte ez dugu izan atentatuaren ondoriozko erasoen berririk.

Bartzelonako Udalean lan anitz egin duzue bizikidetzaren alde. Nola eragin du atentatuak?

Sentsibilizazio lan ororen aurrean, oso zaila izaten da emaitzak noraino iristen diren neurtzea. Baina zalantzarik gabe, urte hauetan egin dugun lanari esker atentatuaren ondorengo erantzuna desberdindu da, dezente, Europan ikusi ditugun beste hirietako gertakariez. Esaterako, komunitate musulmanak manifestazio erraldoi bat antolatu zuen atentatuak gertatu eta egun gutxira, milaka eta milaka lagun bildu zituen. Garrantzitsuena da, komunitate musulmanaz haratago jende asko gehitu zela hitzordu hartara; bizikidetzaren argazki bikaina izan zen hura. Pentsa

orain 2.000 lagun inguru ditugula diskriminazioaren kontra formatuta. Hala ere, eta erantzuna ona izan den arren, islamofobiaren haziaren kontra lan handia dago oraindik egiteko.

Desinformazio handia dago islamaz?

Islama ez da erlijio arau bat bakarrik, eta hori jende askok ez du ezagutzen. Jendeak ramadanarekin lotzen du islama, besterik gabe. Beraz, begirada desbideratu bat nagusi da erlijio horren inguruan; estereotipo negatiboak barra-barra zabaltzen dira, erlijio guztiek orokorrean, eta islamak zehazki, dituzten konplexutasunak ulertu gabe.

Islamaren estigma sustraitua dago. Emakume musulmanena are gehiago?

Generoaren islamofobia aitzakia bat da. Esango nuke emakume musulmanen eskubideen aldeko diskurtsoa defendatzen dutenen gehiengoak, islamari erasotzeko arrazoibide gisa erabiltzen duela bakarrik. Eta, era berean, generoaren islamofobiak erakusten du islamofobia



zenbateraino dagoen sustraituta: askotan erabiltzen da alderdi ezkertiarren bitartez, izan feministak zein laizistak. Badirudi emakume musulmanez edo nor mintzatu daitekeela eurekin hitz egin gabe.

Atentatuaren ondoren biktimenezko omenaldia prestatu zuen Bartzelonako Udalak. Meza bat antolatu ordez, erlijio askatasunaren aldeko ekitaldi bat egin zenuten. Zergatik?

Mossoek bidali ziguten hil ziren eta zaurituak izan ziren biktimen zerrenda, eta jatorriak ikusita, agerikoa zen hor bazezela sentsibiltate eta erlijio desberdinetako jendea. Beraz, omenaldi hark ahalik eta pluralena izan behar zuela ikusi genuen hasieratik. Atentatuaren ondotik gure erronka zen ahalik eta elkartasun handiena izatea aniztasunean.

Sarri begi txarrez ikusten da erlijio aniztasuna. Zuek norabide horretan ari zarete lanean.

Alderdi ezkertiarrek askotan nahasten

dute laizismoa laizitatearekin. Hori da arazoa. Laizitatearen arabera, sekularizazio bat egon behar da erakunde politikoaren eta uste osoko sinesmen erlijiosoen artean. Baina horrek ez du esan nahi erlijio askatasunaren oinarritzko eskubideak babestu ezin direnik. Beraz, gure ustez erakundeek ez dute erlijioa sustatu behar, baina gure ardura da hiritar fededunek euren sinesmenak era askean gauzatzeko baliabideak ahalbidetzea. Bartzelona eskubideen aldeko hiria den heinean, eskubide guztiak babestu behar dira, baita erlijio askatasunarena ere.

Atentatuaren harira eztabaida zabala sortu zen erasotzaileen profilari dagokienez. Biktimak izan ziren zure ustez?

Immolatzea erabakitzen duen edozein pertsona biktima da, bere garunaren garbiketarena bada ere. Gertatzen dena da gainontzekoak hiltzea erabakitzen duena biktimizatzea zaila egiten zaidala. Abuztuaren 17ko terroristak biktimak zirela irmoki baieztatzea zaila egiten zait. Baina argi dagoena da gazte

horiekin gertatu zena ikusita ardura denona dela: erakundeona eta hiritarrona, autoktonoak eta musulmanak.

Hala ere, Bartzelonako atentatuetak egileen profila hagitx desberdina zen European gertatu direnekin alderatuta. Nola uler daiteke?

Normalean halako zerbait egitera bultzatzen duen ezaugarrietako bat gazteek bazterketa sufritu izanari lotuta dago. Kasu honetan euren inguruak argi eta garbi utzi zuen integratuta zeudela. Beraz, nik bi teoria ditut: edo ingurua oker dabil eta gazte horiek ez zeuden integratuta, edo gu, inklusio ezaugarriei dagokienez, oker gabiltza. Eta ausartuko naiz esatera bigarren irakurketatik gertuago sentitzen naizela. Alegia, bazterketa, lagun katalanak izatea, eskolan emaitza bikainak ateratzea eta bertako hizkuntza bikain hitz egitetik haratago iristen da. Beraz, ezinbestekoa da inklusioa baztertu eta egokitasun sentimenduez hitz egiten hastea, halako gertakariak ez errepikatzeko. ■



Gaia jorratzeko emergentziako bilera egin zuen PPk A Coruñaiko Alde Zaharrean.

Galiziako PP: "Jendea oso haserre dago gurekin, emaitza historikoak lor ditzakegu datozen hauteskundeetan"

"Pena da hauteskunde autonomikorik ez tokatzea 2020ra arte, gure kontra dagoen haserre giroa ikusita gehien-go absolutu historikoa lortuko genuke", esan du Alberto Núñez Feijóo Galiziako Xuntako presidenteak, joan den asteburuko suteak baloratuz.

Suteen jatorriari dagokionez, Xuntak adierazi du "gauza hauek ez lirakeela gertatuko suhiltzaileek beren lana ganoraz egingo balute, egun osoa Kataluniako *desapiyo* sezesionistaren kontura orgasmo kolektiboan ibili beharrean". Azalpenak ez ditu konbentzitu oposizio-

ko taldeak. Iragarri dutenez, popularrek suteen aferan egindako gestio negargarria kritikatzeko kanpaina abiaraziko dute egunotan, *PP, ke asko* goiburuarekin.

Espainiako Gobernuak, bere aldetik, bost eguneko epea eman dio Feijoori Galizian benetan suteak egon diren ala ez argitzeko. "Oso lanpetuta gabiltza Puigdemonten flekilo azpian mikrofono bat ezkutatu nahian eta ez dugu astirik Espainiako beste probintzietan zer jatzoten den begiztatzeko", zuritu dute euren burua.

SAREAN ARRANTZATUA

In! Inde! Independentzia!



Carles Pottemont



Zure koinatuak igande honetan deklaratu du Kataluniaren independentzia

"Hainbeste bueltarekin aspertuta nago", esango du zure koinatuak igande honetako famili-bazkarian eta gero, aulki gainera igota, zera gehituko du: "Kale edo bale. Puigdemont akonjonatu bada, neronek deklaratu dut independentzia eta punto". *Els carrers seran sempre nostres* kamiseta erosi berri duen zure lehengusaren babesa izango duela aurreikusten da, baina Beranduegik jakin ahal izan duenez, amona giroa baretzen saiatuko da Urkulluren bidea proposatuz. Bozketa estua espero da, osaba neguritikoak kontrako jarrera argi utzi baitu bazkari-legea urratzen duela argudiatuta. "Ez daukazue putaidearik, utzi niri", berretsi du, nolanahi, koinatuak.



"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES" kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

SAN TELMO MUSEOA

EUSKAL GIZARTEA ATZO ETA GAUR



Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus
[@santelmomuseoa](https://www.instagram.com/santelmomuseoa)



STM
San Telmo Museoa

DK
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN